



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 9a

86 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, turismoari buruzkoa (3. or.).

—Foru Lege proiektua, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (22. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (23. or.).

—Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (25. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeek egina (26. or.).

—Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko ardoaren sektorearen ekoizpen-itxaropenei kalte egiten ahal dieten egungo arau eta lege aldaketak arbuiatzen ditu, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (28. or.).

—Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) aldatzeko egungo zirriborroa arbuiatzen du eta Nafarroako Gobernuari haren aurka egin dezan eskatzen dio, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (29. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Arte Ederretako Museoari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (30. or.).
- Galdera, Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, José Miguel Nuin Moreno jaunak eta Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (31. or.).
- Galdera, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legeko 8. artikuluaaren aplikazioari buruzkoa. Erretiratutako galdera (32. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzea (33. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 50/2002 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Onesten du Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen testu batagina (34. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, turismoari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko ekainaren 24an hartutako erabakiaren bidez, turismoari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Turismoari buruzko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

2. Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Industria, Lan, Merkataritza eta Turismoko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko irailaren 27ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Turismoari buruzko Foru Lege proiektua

1. Nafarroako Foru Komunitatea, berez oso turistikoa ez bada ere, gero eta gehiago, turismoaren balioak garatzen ari da bere lurraldean, bere berezko izaerari eta natur eta monumentu ondareari lotuak gehienbat.

Azken urte hauetan faktore batzuk elkartu dira turismoari buruz foru lege bat lehenbailehen ematera behartzen zutenak. Turismoaren eredia aldatu da, orain gehiago bilatzen baita jarduera horren nolakoa zenbatekoa baino eta gainera ohi ez bezalako aukera turistikoak eskaini nahi baitira, eskari berriak asetzeko. Hori dela eta areagotu egin da turismoaren garrantzia. Horrekin batera, Foru Komunitatean sektore bat pizten ari da, hemen beti egon bada ere, orain herritarrak konturatzen ari baitira haren esanahiaz eta haren ahalmenaz. Ildo horri lotuz, turismoaren arloan eskumena duen departamentuak berriki prestatu du Nafarroan 2001-2004 urteetan sektore turistikoa sendotu eta garatzeko plan estrategikoa, sektore horretan diharduten eragileek kemenez parte hartuta. Plan hori funtsezko osagai bat da, horretan bildu baitira Nafarroako turismoaren alderdi sendoak eta ahulak eta gero batean egin beharreko urratsak ere bai.

Plan estrategikoa horren zehaztapenatariko bat da turismoari buruzko foru legearen beharra. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitatea horrelakorik ez duen lurraldeatariko bat da, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44. artikuluko 13. idatz-zatiak arlo horretan espresuki aitortzen dizkion arren erabateko eskumenak. Erabateko eskumen hori bakarrik Nafarroako diziplina turistikoari buruzko azaroaren 17ko 14/1997 Foru Legearen bidez garatu da. Lege horrek, bere izenak dioenez, diziplina eta zehapen araubidea besterik ez ditu biltzen. Foru lege honen xedeak garatzeke zegoen arlo batean Nafarroako autogobernua bultzatzea ez ezik Turismorako plan estrategikoan espresuki eta behin eta berriro aipatzen den beharra betetzea ere badira. Gainera halaxe eskatzen dute Nafarroko eragile turistikoek. Horrez gain, Estatuko arautegi osagarria Konstituzioa baino lehenagokoa da eta aldatu beharreko eredu gainditu eta zaharkitu bati dagokio.

2. Foru lege honen xede den sektore turistikoaren egoera askotarikoa da. Izan ere, turismoa

antolatu beharraz gain, badira beste lehentasun batzuk, hala nola, Nafarroako baliabide turistikoak baloraztea eta Nafarroa helburu turistiko gisa sustatzea. Turismoan diharduten eragile publiko eta pribatuek helburu horietan lortu behar dituzte elkarlanean eta modu koordinatuan arituz, jarduketak bateratu eta ildo berak nabarmendu eta alfer-lana saihesteko.

Ikuspegi horretatik Nafarroako sektore turistikoaren arazoan kontu nabarmenak foru lege honen oinarri bihurtu dira, halaxekotzat jotze baituzte horretan dihardutenek. Oinarri horiek arau ez ezik aginte publikoen eta eragile pribatuen jarduketaren mami ere bihurtu behar dute jarduera turistikoetan. Foru lege honetako 4. artikuluan aipatzen diren irizpidetan, lehenbizikoa, Nafarroa helmuga turistiko bakartzat jotzea da. Horren ondorioz zabalkunde bakarra egiten da herrialde osoan. Horrez gain, eragileek elkarlanean eta koordinaturik jardun beharko dute eta bestaldetik, kalitatea, ingurune eta kultur ondarearekiko begirunea eta haien jasagarritasuna izanen dira nahitaezkoak turismoan jardutean.

3. Baldintza horietan, foru legeak zazpi titulu, 70 artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen dauka.

I. tituluak foru legearen xedea, haren esparrua, haren helburuak eta haren irizpideak biltzen ditu. Nabarmentzekoa da gehienbat 4. artikulua, jadanik aipatua, foru legea arautzen duten irizpideak biltzen baditu. Izan ere, horiek jarduera turistikoak garatzeko irizpideak ere badira, oinarrizkoak eta funtsezkoak. Horregatik sartu dira I. titulu horretan. Aipatzekoa da Nafarroa helmuga turistikotzat jotzeko lehen irizpidea bat datorrela Nafarroako Parlamentuak 2000ko maiatzaren 24an onetsitako erabakiarekin.

II. tituluaren gaia turismoan parte hartzen duten administrazio publikoen eskumenak dira. Foru legean eskumen banaketa zehatz bat egiten da, Foru Komunitateko Administrazioari eta toki entitateei ematen zaizkienak bereizten baitira, udal autonomia guztiz errespetatuz. Betiere, titulu horretan foru legeko 4. artikuluko bigarren irizpidea gauzatzen da, administrazio publikoen arteko elkarlanerako tresnak finkatzen baitira eta gainera eragile pribatuek parte hartuko baitute turismora-ko politika zehazterakoan.

III. tituluaren jarduera turistikoaren antolatzen da. Gauza berria da 13. artikuluan jarduera turistikoari buruz foru legean erabiltzen diren kontzeptu nagusien zerrenda bat osatzea: baliabide turistikoak, jarduera turistikoak, enpresa turistikoak, enpre-

saz kanpoko entitate turistikoak eta egonleku turistikoak. Jarduera turistikoaren antolamendu juridikoa dagokionez, foru legean ez da aukeratu "baimena", Administrazioak parte hartzeko ohiko araubidea bada ere. Arlo honetan Administrazioaren kontrol bakarra Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzea izanen da. Horrela alde aurreko baimena eman beharrean kreditazioa egin egiten da, ohitura modernoagoa baita, inskribatzerakoan egiten dena. Askatasunez jarduteko araubide honetan gainera Administrazioaren isiltasun positiboa ezartzen da. Hori dena kasu batzuetan alde aurretiko sailkapena edo titulu-lizentzia galarazi gabe, toki entitateen lizentzia egokiak lortuta. Gero, III. tituluarean ondorengo kapituluetan jarduera turistiko guztiak arautzen dira, orain arte arautegi batean ere aipatzen ez direnak: ostatua, sukaldaritza, bitartekaritza, jarduera osagarriak eta lanbide turistikoak. Haietariko bakoitzean gutxieneko arautegi zehatz bat ere ematen da. Zehatzago den arautegi hori erregelamendua ez bezalakoa da, egunero sektore turistikoan gertatzen diren aldaketa garrantzitsuak direla eta, arautegia sektor horren aldakortasunera egokitzeko.

IV. tituluaren turismoaren arloko eskubide eta eginbeharrak aipatzen dira. Erabiltzaile turistikoaren eskubide eta eginbeharrak nabarmentzen dira, haiexek baitira zerbitzu turistikoaren azken kontsumitzaileak. Horregatik kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babesari buruzko arautegi orokorrean eskuarki aipatzen diren eskubide eta eginbeharrak zehazten dira. Hona hemen eskubide horiek: informazioa, kalitatea, dokumentazioa eta fakturak, bereizkeriarik eza eta segurtasuna.

V. tituluaren baliabide turistikoak arautzen dira, arlo hori asko ere asko nabarmendu baitzuen Turismorako Plan Estrategikoak. Orain lege egiten da, gero, garatzerakoan, baliabide horiek erabili, babestu eta hobetu daitezten. Nafarroa egoera berezian dagoenez, natur baliabideen eta monumentuei garrantzi handia ematen zaie, aprobetxamendu turistikoak eta haien zainketa elkarrekin etor daitezten.

VI. tituluaren turismoaren zabalkundeak eta sustapena ukitzen du. Horretan behar gorri bat aipatzen da. Izan ere, zabalkunde nahitaezko jarduerak da Nafarroa turistaren helmuga bihurtzeko, turismo, natura eta monumentuen arloetan baliabide garrantzitsuak baititu. Foru legeko 4. artikuluan aipatzen diren irizpiden ondorioak, zabalkunde turistikoaren kontu garrantzitsuak, Nafarroa helmuga turistiko bakartzat jotzeko irudia eta horietan eragile publiko eta pribatu guztien arteko elkarlana sustatzea. Zabalkundeaz gain, Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako sektore

turistikoa bultzatu behar du kalitatearen orotariko hustapenaren barruan. Egiteko horien ondorioak argibide turistikoa (non egitezko elkarlana beharrezkoa den), sektorearen profesionalizazioa eta elkartegintza, sektorea sustatu eta hobetzeko ahaleginak biltzeko.

Diziplina turistikoiari buruzko VII. titulua neurri handi batean Nafarroako diziplina turistikoiari buruzko azaroaren 17ko 14/1997 foru legeak urratutako bideari lotu zaio. Lege hori orain espresuki indargabetzen da. Gainera, aldaketa batzuk ere sartu dira, bai egiturazkoak, legezko argitasun handiagoa eskaintzeko, bai edukizkoak, bertako aginduak zehapenei buruzko Estatuko oinarriko legeek arlo horretan eginiko aldaketetara egokitzeko.

I. TITULUA

Orotariko xedapenak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean sektore turistikoa arautu, haren helburu eta irizpideak ezarri, Nafarroako administrazio publikoek zerbitzu turistikoa emateko jarduerak eta kalitatea antolatu eta sustatzeko egin beharrekoak zehaztu, turismoaren arloan dihardutenen eskubide eta eginbeharrak finkatu eta Nafarroako baliabide turistikoa sendotzea.

2. artikulua. Esparrua.

Foru lege hau jarduera turistikoa diharduten subjektu guztiei aplikatuko zaie eta bereziki:

a) Nafarroako Foru Komunitatean turismoan diharduten pertsona fisiko eta juridiko guztiei.

b) Sektore turistikoaen arloan parte hartzen duten administrazio publikoei eta haien menpeko entitate, erakunde edo pertsona publiko edo pribatuei, sektore horretan badihardute.

c) Turistei edo jarduera eta zerbitzu turistikoa darabiltzaten.

d) Nafarroako Foru Komunitatean diharduten enpresa turistikoen titular edo kudeatzaileen elkartei.

3. artikulua. Helburuak.

Foru lege honen helburuak hauexek dira:

a) Turismoa bultzatzea, gizartean eta ekonomian eragina duen sektorea baita, lana eta aberastasuna sortzen duena.

b) Nafarroako Foru Komunitatera turistak erakartzea.

c) Turismoa bultzatzea, ez bakarrik jarduera ekonomiko gisa, baizik eta gizartearen balio gisa ere bai, Nafarroako eskualdeak, kultura, ekonomia eta gizarte ezagutzeko.

d) Nafarroako administrazio publikoek turismoaren arloan dituzten eskumenak bereiztea eta haien jarduketak elkarlanean eta lankidetzan koordinatzea.

e) Jarduera turistikoa antolatzea.

f) Turisten edo erabiltzaile turistikoen eskubiak babestea.

g) Baliabide turistikoa babestu eta sendotzea.

h) Sektoreko profesionalen heziketa eta espezializazioa bultzatzea.

4. artikulua. Irizpideak.

Hona hemen foru lege honen oinarriko irizpideak.

1goa. Nafarroak tratamendu bakarra izanen da bere zabalkundearen helmuga turistikotarako.

2garrena. Administrazio publikoen, haien erakunde eta organo administratiboen, enpresa eta egonleku turistikoen arteko harremanak koordinazio, elkarlan eta lankidetzaren irizpideei lotuz arautuko dira.

3garrena. Jarduera turistikoen garapenaren kalitatea.

4garrena. Nafarroako Foru Komunitatean egiten den turismoak begirunea, hobekuntza eta jasangarritasuna kontuan hartuz lagunduko du naturgunea, ingurunea eta kultur ondarea garatzen.

5garrena. Zabalkunde turistikoa, Nafarroako eskualdeen arteko orekarako eta herrietako bizia mantendu eta garatzeko faktore estrategikoa den aldetik.

II. TITULUA

Administrazioen eskumenak eta antolamendua

I. KAPITULUA

Eskumenak

5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagozkio eskumen hauek turismoa garatzeko:

a) Foru Komunitateko turismorako politika prestatu eta betetzea.

b) Nafarroaren irudia helmuga turistikotako bultzatzea.

c) Foru Komunitatean turismoa planifikatu, antolatu eta sustatzea.

d) Foru lege hau erregelamenduen bidez garatzea eta 3. artikuluan aipatzen diren helburuak lortzeko behar diren arauak eman eta neurriak hartzea.

e) Turismoaren zabalkundea eta argibide turistikoa Nafarroan koordinatzea.

f) Sektore turistikoa kalitateko programak sustatzea.

g) Administrazioak inskribatu, ikuskatu eta zehatzeko dituen eskumenak erabiltzea, foru lege honetan xedatu bezala.

h) Sektore turistikoa profesionalizazioa bultzatzea.

i) Turismoko erregistroak sortu eta kudeatzea eta sektore turistikoko estatistikak egitea.

j) Legeek eta bestelako arauak turismoari buruz ematen dizkieten eskumen guztiak.

2. Eskumen horiek erabiltzean, Foru Komunitateko Administrazioa saiatuko da, behar denean, Estatuko Administrazio Nagusiarekin koordinatzen eta hitzartzen, baita toki entitateekin ere.

6. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Nafarroako toki entitateei eskumen hauek dagozkie turismoari buruz.

a) Turismoari loturiko baliabide, jarduera eta bestelako kontuak sustatu eta bultzatzea, beren interesekoak badira, Foru Komunitateko Administrazioarekin koordinaturik.

b) Baliabide turistikoa babestu eta zaintzea, bereziki naturgunea eta monumentu ondarea.

c) Turismoaren arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin elkarlanean aritzea.

d) Enpresa eta egonleku turistikoei dagokienez, legeek ematen dizkieten baimenak onartzea.

e) Beren eskumenerako azpiegitura turistikoen politika garatzea.

f) Legeekin bat dagozkien zerbitzuak kudeatzea.

g) Legeek turismoari buruz ematen dizkieten beste eskumen guztiak.

7. artikulua. Administrazioen arteko harremanak.

Administrazioen eta haien menpeko erakundeen arteko harremanak eragingarritasun, koordinazio, elkarlan, lankidetzeta eta informazio-trukaketa kontuan hartuz egingen dira.

II. KAPITULUA

Administrazioaren antolamendua

8. artikulua. Turismoaren antolamendua arloan eskumena duen Departamentuan.

1. Foru Komunitateko Administrazioak turismoari buruzko eskumenak unean-unean bere gain dituen Departamentuaren bidez erabiliko ditu eta, horren barruan, ezarririk daukan egitura administrazioaren bidez.

Aurreko idatz-zatian aipatzen diren eskumenak erabiliko dira Nafarroako Gobernuari organo kolegiatua den aldetik dagozkion eskumenak galarazi gabe eta Foru Komunitateko Administrazioko beste Departamentuekiko elkarlanean.

Eskumen horiek erabiltzeko, turismoaren arloan eskudun den departamentuari organo hauek atxikiko zaizkio.

a) Nafarroako Turismoaren Kontseilua.

b) Turismoko Departamentuaren arteko Batzardea.

c) Koordinazio Turistikorako Batzardea.

9. artikulua. Nafarroako Turismoaren Kontseilua.

Nafarroako Turismoaren Kontseilua turismoaren arloan Foru Komunitateko Administrazioari aholkuak ematen dizkion organoa da.

Nafarroako Turismo Kontseiluari eginkizun hauek dagozkie:

a) Turismoaren arloan Foru Komunitateko Administrazioari aholkuak ematea.

b) Turismoaren arloan eskudun den departamentuak eskatzen dizkion azterlanak prestatu eta txostenak egitea.

c) Turismoaren arloan eskudun den departamentuak Departamentuak horri buruz duen politika zehaztu eta aurrera eramateko eskatzen dion laguntza ematea.

d) Turismoa sustatu eta sektore turistikoa hobetzeko egokitzat jotzen dituen ekinbideak aurkeztu eta neurriak proposatzea.

e) Foru Komunitateko Administrazioak eskatzen dizkion eskumen guztiak.

3. Nafarroako Turismoaren Kontseiluak turismoaren arloan esku den departamentuaren

ordezkari bat izanen du buru eta bertan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, partzuergo turistikoak, enpresa turistikoen elkarteak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala eta erregelamendu bidez ezartzen diren erakunde, elkarte edo entitateak ere egonen dira ordezkaturik.

4. Haren osaera, antolamendua eta funtzionamendua erregelamenduen bidez ezarriko da.

10. artikulua. Departamentuen arteko Turismoko Batzordea.

1. Departamentuen arteko Turismoko Batzordea Foru Administrazioan turismoa koordinatzen duen organoa da.

2. Batzordeak turismoaren arloan eskumena duen kontseilaria izanen du buru eta bertan ordezkaturiko egonen dira Nafarroako Gobernuo Ekonomia eta Ogasun Departamentua; Herrilan, Garraio eta Komunikazio departamentua; Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua; Hezkuntza eta Kultura Departamentua; eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua. Gainera, aztertzen diren gaien arabera, beste departamentu batzuetako ordezkariak ere eskatzen ahalko zaie bertan ager daitezela.

Haren osaera, antolamendua eta funtzionamendua erregelamenduen bidez ezarriko da.

11. artikulua. Partzuergo turistikoak.

1. Partzuergo turistikoak toki entitateak elkartu eta elkar lanean aritzeko era bat dira, sektore pribatuaren ordezkariak bertan esku hartuta. Nafarroako toki administrazioari buruzko foru legearen xedaturikoaren arabera, nortasun juridiko berezko eta beregaina izanen du eta partzuergoko toki entitateek turismoan dituzten eskumenak erabiliko dituzte, haiei esleitu bazaizkie, hala nola:

a) Eremu horretako jarduera turistikoak sustatu, zabaldu eta bultzatzea.

b) Baliabide turistikoen gainean argibideak eskaintzea eta espresuki ematen zaizkien baliabideen ustiapena zuzenean kudeatzea.

c) Turismoaren arloan eskumena duen administrazioari sektorea hobekien garatzeko komeni diren proposamen eta gomendioak igortzea.

Foru lege honi dagokionez, eginkizun horiek garatzen dituzten partzuergoak joko dira partzuergo turistikotzat.

2. Aurreko idatz-zatiak esanak esan, jarduera turistikoetan arloan eskudun den departamentuarekin elkar lanean aritzeko, departamentuak era-

bakitzen ahalko du zer betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzten partzuergoek.

12. artikulua. Koordinazio Turistikoko Batzordea.

1. Koordinazio Turistikoko Batzordea Foru Komunitateko Administrazioaren eta partzuergo turistikoen arteko elkarlan eta koordinaziorako organo administratiboa da.

2. Batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Turismoaren arloko jarduketak koordinatu eta haien jarraipena egitea.

b) Turismoaren eskumena duen departamentuak turismoari buruz egiten dizkion galdera guztiak erantzutea.

c) Turismoaren arloan eskumena duen departamentuaren sektore turistikoari buruz egokitzen dituen proposamenak igortzea.

3. Batzordeak turismoaren arloan eskudun den departamentuaren ordezkari bat izanen du buru eta bertan ezartzen diren betebeharrak eta baldintzak guztiak betetzen dituzten partzuergo turistikoen ordezkari bana arituko dira.

4. Haren osaera, antolamendua eta funtzionamendua erregelamenduen bidez ezarriko da.

III. TITULUA

Jarduera turistikoaren antolamendua

I. KAPITULUA

Orotariko xedapenak

13. artikulua. Kontzeptuak

Foru lege honetako kontzeptuak:

Baliabide turistikoa: ondasuna edo Nafarroako errealitate fisiko, geografiko, sozial edo kulturalaren adierazpena, turistaren joan-etorriak erakar ditzakeena.

Horretarako, joan-etorria da pertsonak nor bere etxetik atera eta handik kanpo egotea.

Jarduera turistikoa: baliabide turistikoak gozatu, aurkitu, ezagutu, ikasi, zaindu eta zabaltzea xede duena, ostaldea, mantenua, sukaldaritza, argibideak, bitartekaritza, zabalkundea eta merkaturatzea emanda edo biltzarrak, mintzaldiak eta anzeko ekitaldiak antolatuta, baita Foru Komunitateko Administrazioak horrelakotzat jotzen duen beste edozein jarduera.

Enpresa turistikoa: bere izenean, jarduera turistiko bat dirua irabazteko asmoarekin egin ohi duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo zerbitzu

turistikoren bat ematen duena. Jarduera "ohikoa" dela ulertuko da edozein baliabideren bidez zerbitzu turistikoen publikizitatea egiten denean.

Enpresaz kanpoko entitatea: garapen turistikoa edo jarduera turistikoa zeinbait bultzatzea xede duena, irabazi asmorik gabe.

Egonleku turistikoa: eginkizunetarako banako beregain bat osatzen duten ondasun higigarri eta higiezinen multzoa, titularrak zerbitzu turistikoko goki bat emateko antolatuta eta prestatzen duena.

14. artikulua. Jarduera turistikoen araubide juridikoa.

1. Jarduera turistikoa libreak dira. Muga bakarrik aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduen ondoriozkoak dira.

2. Aurreko idatz-zatian galarazi gabe, enpresa eta egonleku turistikoei eta enpresaz kanpoko entitate turistikoei, jarduera hasi baino lehen, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturik egon beharko dute eta bestelako erakundeek zeinek bere eskumenen arabera eskatzen ahal dizkieten lizentzia edo baimenak eduki.

Erregistroan sailkatu eta inskribatzeko kontuan harturiko baldintza eta betebeharrak nabarmen aldatuz gero, aldaketa hori bertan adierazi behar da. Betiere, "nabarmenztat" hartuko dira egonleku turistikoen postuen kopurua aldatzea, zerbitzuak gehitzea eta erabilera turistikoa eta titulartasuna aldatzea.

Inskripzioaren xede izan den jarduera elkarren segidan bi urtetik goiti utziz gero inskripzioa ofizioski baliogabetuko da.

Inskribatu gabe edo bertan behera utzi ondoren edozein hedabideren bidez eginiko publikizitatea edo alde aurretik Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu beharra daukaten hala egin gabe zerbitzu turistikoa ematea legez kanpotzat joko dira.

3. Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu baino lehen, Turismo Administrazioak jarduera sailkatuko du, hala behar denean. Sailkapen horrek horretarako kontuan hartzen diren betebeharrak betetzen diren iraunen du eta ofizioski edo alde aurretik berraztertzen ahalko da, bidezko diren izapidaketak egin ondoren. Ulertuko da inskribatzeko eskabideak onartu direla eskatzaileari ebazpenik jakinarazi gabe hiru hilabete pasatzen direnean, aurkezten direnetik aurrera.

4. Jarduera turistikoen ematen diren zerbitzuen prezioak libreak dira. Prezioak betiere erabilzaileen eskura izanen dira eta egonleku turistikoen ikusgai.

5. Egonleku turistikoen guztiak publikoak dira, alegia, edonor sartzeko ahal da haietan. Muga bakarrik izanen dira haien izaera eta tamaina, indarra duten legeak eta, betiere, zerbitzu eta instalazioak erabiltzeko egonlekuko barne arauak.

Inori egonleku turistikoa publikoetan sartzeko ez da bereizkeriarik onartuko, dela jaioterri, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo pertsonaren edo giza-taldeen beste edozein gorabehera edo izaerarengatik.

15. artikulua. Nafarroako Turismo Erregistroa.

1. Nafarroako Turismo Erregistroa erregistro publiko administratibo bat da. Haren xedea da inskribatzea egonleku turistikoa, enpresa turistikoa, enpresaz kanpoko entitate turistikoa eta bere jarduera turistikoa erregelamendu bidez zehazten den beste edozein egonleku edo pertsona.

2. Enpresa eta egonleku turistikoa ofizioski inskribatuko dira edo interesatuak eskaturik. Ulertuko da inskribatzeko eskabideak onartu direla aurkezten direnetik hiru hilabete pasatzen direnean, eskatzaileari espresuki ebazpenik jakinarazi ez bazaio.

3. Inskripzioa nahitaezkoa izanen da enpresa turistikoen edo haien egonlekuendako, enpresaz kanpoko entitateendako eta arauturik dauden jardueren turistikoen edo. Beste kasuetan inskripzioa aukerakoa izanen da.

Betiere, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzea nahitaezko baldintza izanen da turismoaren arloko dirulaguntzak kobratu ahal izateko.

4. Erregelamendu bidez Erregistroaren antolamendu eta funtzionamenduen arauak, inskripzioen prozedura eta edukia eta haiek kreditatzeko era ezarriko dira.

II. KAPITULUA

Ostatu turistikoen jarduera

16. artikulua. Kontzeptua.

1. Ostatu turistikoa jendeari irekiriko egonlekua da, eskatzen duten erabilzaile turistikoei aldi baterako egoteko tokia ematen diona, diru truk, bestelako zerbitzu osagarriak emanda edo eman gabe.

2. Foru lege honetatik kanpo gelditzen dira:

a) Entitate pribatuek beren kideek ez bestek erabiltzeko zerbitzua ematen duten ostatuak.

b) Eskola, kultura, ingurumen, erlijio edo kirolaren arloko jardueren nagusien menpeko ostatu osagarriak, turismorako merkaturatzen ez bada.

c) Erakunde ofizial, ongizate, laguntza edo lan arloetarako ostatuak edo Administrazioak gazte-
endako edo zaharrendako programen barruan
darabiltzanak, berariazko arauak izanen baitituzte.

d) Ostatu turistikoen mota bakoitzean espresu-
ki baztertzen direnak.

3. Ostatu turistikoa ustiategi bakarreko irizpide-
ari jarraituz antolatuko da. Horrela jarduerak
enpresa bakar bat izanen du titular. Titulartasun
hori egonleku bakoitzerako edo ostatu multzo
bakoitzerako, eraikin edo horren zati homogeneo
bakoitzerako erabiliko da, foru lege honetan
aurreikusten den ostatu mota bakoitzaren arabe-
ra.

17. artikulua. Motak, kategoriak eta bereizga-
rriak.

Ostatu turistikoko egonlekuak honelaxe sailka-
tzen dira:

- a) Hotelak.
- b) Kanpaleku turistikoak.
- c) Turismoko aterpetxeak.
- d) Landetxeak.
- e) Turismoko apartamentuak.
- f) Arau berezien xede den beste edozein.

Erregelamendu bidez ostatuak kategorien ara-
bera sailkatuko dira. Sailkapen horretan zerbi-
tzuak eta instalazioak baloratuko dira. Betiere,
kontu hauek hartuko dira aintzakotzat:

- a) Egonlekua dagoeneko eraikinaren edo ere-
muaren kokagunea eta beste inguruabarrak.
- b) Logelen, bainugelen eta bezero guztiek era-
biltzeko instalazioen egoera eta hornidura.
- c) Ezgaituendako zerbitzuak.
- d) Zerbitzu osagarriak.
- e) Eskaintzaren kalitatea, oro har, instalazioei
eta zerbitzuei dagokienez.
- f) Egonlekua zaindu, mantendu eta hobetzeko
eginiko ahaleginak eta ingurumena zaindu, ener-
gia aurreztu eta energia berriztagarriak erabiltze-
koak ere bai.

3. Arrazoiak emanda, Administrazioak egon-
leku bat salbuesten ahalko du foru lege honetan
edo hau garatzen duten erregelamenduetan ezar-
tzen diren betebeharrak teknikoetatik, inskribatu edo
kategoria batean sartzerakoan, gertatzen diren
inguruabarrengatik ez betetze hori instalazioen
eta egin ditzakeen hobekuntzen orotariko balora-
zioarekin orekatzen bada.

4. Ostaturako egonleku guztietan nahitaezkoa
izanen da atari nagusian erregelamendu bidez
xedatzen denaren arabera plaka normaldu bat
erakustea, non egonleku motaren eta haren sail-
kapenaren bereizgarria agertuko baita.

Ostaturako egonlekuek egiten duten publizita-
tean eta fakturretan ere bai, haien kategoriak ager-
tu beharko dute.

18. artikulua. Ostaturako egonlekuen kalitata-
teko baldintzak.

1. Ostaturako egonleku guztiek hirigintza, erai-
kuntza, etxegintza, instalazio, osasun, kontsumo,
segurtasun, higiene eta ingurumenaren babesar-
ren arloetan indarra duten arautegia bete beharko
dute.

2. Turismorako egonleku guztiak behartuak
daude beren instalazioak ongi zaintzera eta sail-
kapen eta erregistrorako gutxienezko erregistroak
mantentzera.

3. Kategorien araberako sailkapenez gain,
erregelamendu bidez kalitatearen araberako siste-
ma bat ezartzen ahalko da, instalazioak, zerbi-
tzuak eta langileen gaitasuna baloratu eta frogat-
zen dituen.

19. artikulua. Hotelak.

1. Hotelak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Berezko hotela: egonleku mota honek erai-
kin oso bat edo haren zati bereizi bat hartu behar
du. Sarrerak, eskailerak eta, hala bada, igogailuak
eduki beharko ditu bezeroek bereizirik eta bakarrik
erabiltzekoak, eta erregelamendu bidez ezartzen
diren betebeharrak teknikoak bete.

Salbuespen gisa eraikin oso batzuk hartzen
dituzten berezko hotelak ere onartuko dira, multzo
arkitektoniko homogeneo bat osatzen badute.

b) Herrietako hotela: herri batean dagoena,
balio arkitektoniko bereziko ondasun higiezin
batean kokatua, edo eskualdeko ohiko arkitektu-
raren eredu dena eta erregelamendu bidez ezar-
tzen diren ezaugarri eta betebeharrak teknikoak bete-
tzen dituen.

c) Hotel-apartamentua: bere egituragatik eta
bere instalazioengatik ostatuan berean elikagaiak
zaindu, prestatu eta jateko egoki diren instalazio-
ak dauzkan egonlekua, erregelamendu bidez
ezartzen diren betebeharrak teknikoak betetzen
dituen.

d) Hostala: berezko hotela ez bada ere, erre-
gelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak tekni-
koak betetzen dituen egonlekua.

e) Pentsioa: berezko hotela edo hostala ez bada ere, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak teknikoak betetzen dituen egonlekua.

2. Erregelamendu bidez ezartzen denean, hotel mota guztiei espezializazio bat aitortzen ahalko zaie, ezaugarrien, egoeraren, instalazio osagarrien eta eskaintzen dituzten zerbitzuen araberak, baita egonlekuaren eskaintza motaren araberak ere bai.

20. artikulua. Turismorako kanpalekuak.

1. Kanpaleku turistikoa da ongi mugaturiko lurra, egokitua eta behar diren instalazio eta zerbitzuak dauzkana, aldi baterako pertsonen atez kanpoan egoteko toki bat emateko erabiltzen dena, diru truk, oportetarako edo turismorako, betiere kanpadendak, karabanak edo toki batetik bestera eramanean daitezkeen antzeko tresnak erabilita.

2. Kanpaldi libreak, gazteen kanpaldiek eta turismorako kanpalekuz kanpoan egiten direnek berariazko arauak izanen dituzte.

3. Artikulu honetako lehenbiziko lerroaldean xedaturikoa ukatu gabe, eremuak ehunekoa gaintzen ez duenean eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzen dituzenean, turismorako arloan eskumena duen organoak baimena ematen ahalko du osagai finko hauek paratzeko, erabiltzaileen edo langileen taldekako beharrak betetzeko gain:

a) Ostaturako erabiltzen direnak, aurrefabrika-tuak, zurezkoak edo antzekoak, bungalo motakoak, kanpalekuaren titularrak ustiatzen baditu.

b) Askotariko logeletan ostatu emateko erabiltzen diren instalazioak.

4. Erregelamendu bidez turismorako kanpalekuei eta haien kategoriei eskatzen ahal zaizkien betebeharrak teknikoak zehaztuko dira.

21. artikulua. Aterpetxe turistikoak.

Turismorako aterpetxeak dira publikoari lanbidez eta diru truk askotariko logeletan ostatu ematen diotenak, inguruneari loturiko jarduera batekin batera.

Ez dira aterpetxe turistikoak:

a) Turismorako kanpalekuetan askotariko logeletan erabiltzen diren instalazioak.

b) Askotariko logeletako ostatuak, talde edo erakunde bateko kidea izatea bada haiek erabiltzeko baldintza.

c) Askotariko logeletako ostatua diru truk ematen denean edo pagatzen den dirua oparia edo

ostatu ematen duenarendako gastuen ordain hutsa bada.

d) Gazteen aterpetheen sareko gazte aterpetxeak, berariazko arauak izanen baituzte.

3. Erregelamendu bidez turismorako aterpetxeei eta haien kategoriei eskatzen ahal zaizkien betebeharrak zehaztuko dira.

22. artikulua. Landetxeak.

Landetxeak dira ostatu ematen duten egonlekuak, mantenua barne edo ez, diru truk, eraikina herri batean badago eta haren edergailuak eskualdeko ohiko eta berezko arkitektuarenak badira.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira landetxeei eta haien motei eta haien kategoriei eskatzen ahal zaizkien betebeharrak teknikoak eta gutxieneko zerbitzuak.

23. artikulua. Apartamentu turistikoak.

Apartamentu turistikoak dira etxebizitza erakina, etxeak, villak, txaletak edo antzekoak eta haien multzoak, diru truk eta egun, aste edo hila-betetarako, ostatu ematen dutenak, elikagaiak eta zerbitzuak zaindu, prestatu eta jateko instalazio eta ekipoa barne, norbait berehala kokatzeko moduan, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak betetzen badituzte.

Betiere jendearendako bulego bat eduki behar dute, behar bezala hornitua.

III. KAPITULUA
Sukaldaritza

24. artikulua. Kontzeptua.

1. Jantokiak dira lanbidez eta diru truk jendearendako instalazio finko edo mugikorretatik elikagaiak eta edariak lanbidez eta diru truk eman ohi dituztenak, bertan jan-edateko.

2. Foru lege honetatik kanpo gelditzen dira taldekako jantokiak, alegia, laguntza, erakunde ofizial, eskola, unibertsitate, elkarte eta lan arloetakoak eta talde batzuekiko eta ez erabiltzaile guztiendako direnak.

25. Motak eta sailkapena.

Jantokiak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Jatetxeak.

b) Kafetegiak.

c) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste-lako jantokiak.

2. Jatetxeak izateko zerbitzu hori emateko erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak bete ezezik, otordu zehatzak dituztenak, bereziki jantoki berezietan.

3. Kafetegiak dira zerbitzu hori prestakuntza erraz eta lasterreko plater bakun edo konbinatuen bidez ematen dutenak, barran edo mahaian, otordu zehatzik gabe.

4. Mota guztietarako sukaldaritza enpresetako instalazio eta zerbitzuen ezaugarri, zerbitzu mota eta kalitate betebeharrak eta kategorien arabera-ko sailkapena erregelamendu bidez ezarriko dira.

IV. KAPITULUA Bitartekaritza turistikoa

26. artikulua. Kontzeptua eta motak.

1. Bitartekaritza turistikoa zerbitzu turistikoaren erabiltzailearen eta eskatzailearen arteko harremana da, baita produktu turistikoaren antolamendua ere.

Hona hemen bitartekaritza turistikoko enpresak.

a) Bidai agentziak.

b) Enpresa turistikoen elkarteak, haien helburua enpresa elkartuen eskaintzak batera merkaturatzea bada.

c) Erreserba bulegoak.

d) Biltzar, azoka eta bileren antolamendu profesionala xede dutenak.

e) Zerbitzu turistikoen merkaturatzea, bitartekaritza eta antolamendua eta turismo argibideak xede dituztenak, bidai agentziaren berezko xedea ez direnean eta erregelamendu bidez halaxekotzat hartzen direnean.

27. artikulua. Bidai agentziak.

1. Bidai agentziak dira modu profesional eta komertzialean zerbitzu turistikoen bitartekaritza eta antolamenduan baizik ez diharduten enpresak.

2. Bidai agentzien legezko izaera eta haien izena aurreko idatz-zatian aipatzen diren enpresak baizik ez dute izanen. "Bidaia" eta "bidaiak" hitzak haien jardueren izenburu edo azpi-izenburu osotako edo haien zatitako bakarrik legez bidai agentziak direnek erabiltzen ahalko dituzte.

3. Bidai agentziak, haien jardueren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

a) Handizkakoak: txikizkako agentzietatik zerbitzu eta multzo turistikoak asmatu, pres-

tatu eta antolatzen dituztenak; alegia, beren produktuak zuzenean erabiltzaileari edo turistari ezin eskaini dizkietenak.

b) Txikizkakoak: handizkako agentzien produktua merkaturatu eta zuzenean erabiltzaileari edo turistari saltzen diotenak eta erabiltzaileendako zuzenean zerbitzu eta multzo turistikoak asmatu, prestatu eta saltzen dituztenak, alegia, beren produktuak beste agentzietatik ezin saldu dizkietenak.

c) Handizkako-txikizkakoak: aurreko bi taldeetan batera dihardutenak.

4. Bidai agentzien titulu-lizentzia eskuratzeko betebeharrak erregelamendu bidez ezarriko dira.

5. Titulu-lizentziarik gabe publikoari bidaiak eskaintzea eta bidai agentzien berezko jarduera komertzialak egin edo iragartzea mutur-sartze profesionala izanen da, salbu eta Kapitulu honetan aipatzen diren enpresak izanez gero.

28. artikulua. Bitartekaritzarako bestelako enpresak.

1. Bitartekaritzarako bestelako enpresek batera turismoa merkaturatzea izanen dute xede bakarra. Erabiltzaile turistikoak Nafarroako Foru Komunitatean hartu eta lurralde horretan zerbitzu turistikoak eskaini baizik ez dute egiten.

2. Erregelamendu bidez enpresa hauei eskuratu beharreko betebeharrak zehaztuko dira.

V. KAPITULUA Jarduera turistiko osagarriak

29. artikulua. Kontzeptua eta motak.

1. Jarduera turistiko osagarriak dira diru truk modu profesional eta ohikoan bezeroen aisialdi eta atsedenerako zerbitzuak eskaintzen dituztenak, direla kulturakoak, jolasak, kirolak, naturakoak edo antzekoak.

2. Erregelamendu bidez enpresa hauek bete beharko dituzten baldintzak zehaztuko dira.

VI. KAPITULUA Lanbide turistikoak

30. artikulua. Lanbide turistikoak.

Foru lege honi dagokionez, lanbide turistikoak dira gaitasun berezi bat behar dutenak, enpresa turistikoetan berariazko zerbitzuak ohiko moduan eta diru truk ematekoak, baita argibideak, sorospena, laguntza, jokoak eta itzulpenak egitekoak ere, eta titulu, baldintza eta betebeharren arabera erregelamendu bidez ezartzen direnak ere bai.

IV. TITULUA

Turismoaren arloko eskubide eta eginbeharrak

31. artikulua. Erabiltzaile turistikoaren eskubide eta eginbeharrak.

1. Erabiltzaile turistikoak dira zerbitzu turistikoaren baten azkeneko hartzaileak diren pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Zerbitzu turistikoaren erabiltzaileek foru lege honetan aipatzen diren eskubide eta eginbeharrak izanzen dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileak diren aldetik dagozkien eskubideak eta bestelako arauak aitortu edo ezartzen dizkieten eskubide edo eginbeharrak galarazi gabe.

32. artikulua. Erabiltzaile turistikoaren eskubideak.

Erabiltzaile turistikoek berariazko eskubide hauek izanzen dituzte.

a) Kontratua izenpetu aitzin eskaintzen zaizkien zerbitzuen gainean egiazko eta alde aurreko informazioa hartzeko eskubidea, osoa eta zehatza. Informazio hori enpresa eta egonleku turistikoendako bete beharrekoa izanzen da.

b) Kontratuaren arabera, ondasun eta zerbitzuen kalitaterako eskubidea.

c) Beste alde kontratatzailearengandik kontratuko baldintzak frogatzen dituzten agiriak lortzeko eskubidea, baita legeen arabera eginiko fakturak ere.

d) Arrazoi, sorteri, erlijio, iritzi edo norberaren edo giza-taldearen beste edozein gorabeheragatik zerbitzu turistikoak erabiltzerakoan bereizkeriarik ez jasateko eskubidea.

e) Hartzen dituen zerbitzu turistikoetan bere eta bere ondasunen segurtasuna bermaturik edukitzeko eskubidea, indarra duten erregelamenduetan xedatu bezala.

f) Kexak eta erreklamazioak aurkezteko eskubidea.

33. artikulua. Erabiltzaile turistikoaren eginbeharrak.

Erabiltzaile turistikoek berariazko eginbeharrak izanzen dituzte.

Nafarroako Foru Komunitateko ingurune, gizarte eta kulturarekiko begirunea.

Bisitatzen dituen tokietako eta zerbitzuak ematen dizkieten egonlekuetako berezko agindu eta arauak betetzea, legeen kontrakoak ez badira.

Egonleku turistikoak ongi erabiltzeko higiene eta bizikidetzarako emaniko arauak betetzea eta

beste erabiltzaile turistikoak, enpresa eta egonleku turistikoetako langileak, egonlekuak berak, eta erabiltzen dituzten instalazio eta jabetzak errespetatzea ere bai.

Kontrataturiko zerbitzuak pagatzea. Kexa edo erreklamazio bat aurkeztea ez da behinere pagatzeko aitzakia izanzen.

Eskainiriko zerbitzuak erabiltzeko arauak errespetatzea.

34. artikulua. Enpresa turistikoaren eskubideak.

Enpresa turistikoek eskubide hauek izanzen dituzte:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Turismo Administrazioaren katalogo, helbide, gidaliburu eta argibideetan agertzeko eskubidea, baita bere egonlekuen instalazio, ezaugarri eta berariazko eskaintzari buruzko argibideak hartzekoa ere, administrazio hark ezartzen dituen baldintzetan.

b) Foru Komunitateko Administrazioak zabal-kunde turistikorako egiten dituen ekintzetan parte hartzeko eskubidea, hark ezartzen dituen baldintzetan.

c) Turismo Administrazioetik bere ekitaldiak egin eta bere zerbitzuak eskaintzeko behar den inskripzioa lortzeko eskubidea, foru lege honetan ezartzen diren kasuetan.

d) Sektorea garatzeko Turismo Administrazioak ezarritako laguntzak eskatzeko eskubidea.

e) Bere bidez edo sektoreko elkarrekin bidez, Nafarroako Foru Komunitatean turismoa garatzeko edozein ekitaldi proposatzeko eskubidea.

f) Eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko arauak emateko eskubidea, indarra duten legeen kontra jotzen ez badute.

35. artikulua. Enpresa turistikoaren eginbeharrak.

Enpresa turistikoek foru lege honetan eta hau garatzen duten arauetan ezartzen diren eginbeharrak izanzen dituzte, partikularzki:

a) Bezero edo erabiltzaile turistikoek eskaintzen dituzten zerbitzuen edukia, baldintzak eta prezioa jakinaraztea.

b) Kontratuko baldintzen arabera, zerbitzuak kalitaterik handienaz ematea eta ezarri edo itunduriko prezioen arabera kobratzea.

c) Zerbitzuen prezioak eta sailkapenaren bereizgarria ikusgai jartzea.

d) Erabiltzaileak arraza, sorteri, erlijio, iritzi edo norberaren edo giza-taldearen beste edozein

goraberagatik bereizkeriaz ez tratatzea eta legeetan ezarri bezala ezinduei egonlekuetan sartzeko erraztasunak ematea.

e) Instalazioak eta zerbitzuak funtzionatu eta erabiltzeko ongi edukitzea eta erabiltzaileari tratu zuzen eta egokia ematea.

f) Erabiltzaileari kexak eta erreklamazioak aurkezteko behar dituen agiriak ematea, hala eskatuz gero.

g) Administrazio publikoei beren eskumenak erabiltzeko behar dituzten argibide eta agiriak ematea.

h) Jarduera, egonlekua edo enpresa ukitzen duen beste edozein legetan ezartzen diren egin-beharrak egitea.

V. TITULUA Baliabide turistikoak

36. artikulua. Definizioa.

Baliabide turistikoak dira foru lege honetako 13. artikuluan aipatzen direnak. Partikularzki, baliabide turistikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko natur ondarearen, eskualdeen eta kulturaren osagaiak, haren ohitura, aztura eta tradizioak, ostatu eta jantokirako azpiegiturak eta enpresa turistikoaren beste edozein ekarpen.

37. artikulua. Baliabide turistikoaren antolamendua.

1. Turismo Administrazioak baliabide turistikoak planifikatu eta antolatzeko behar diren tresnak ezarri, helburuak, beharrak eta lehentasunak zehaztu eta ingurunea eta kultur ondarea zaindu eta babesten arreta berezia jarriko du.

2. Horretarako, Foru Komunitateko Administrazioak, bestelako administrazioekin eta entitate publiko eta pribatuarekin elkarlanean, behar diren azterlan, estatistika, inbentario eta bestelako baliabideak prestatuko ditu.

38. artikulua. Natur baliabide turistikoak.

1. Foru Administrazioaren beste departamentuen eskumenak eta haiekiko koordinazioa deusetan galarazi gabe, beharrezkoa baita, turismoaren arloan eskudun den departamentuak natur baliabide turistikoak naturgunearekiko begirunea eta jasangarritasuna irizpide hartuta sustatuko ditu.

2. Foru Komunitateko Administrazioa eta toki entitateak elkarlanean arituko dira natur baliabide turistikoak zentzuz erabiltzeko moduan eskaintzearen, irizpide berak erabilita, turismoarekin batera naturgunearekiko erabateko begirunea ahalbidetzeko.

39. artikulua. Kultur baliabide turistikoak.

Foru Komunitateko beste departamentuen eskumenak eta haien arteko koordinazioa, beharrezkoa baita, galarazi gabe, turismoaren arloan eskudun den departamentuak sustatuko du kultur ondasunak baliabide turistikoak erabil daitezela, betiere haien babes araubidea bermaturik.

40. artikulua. Baliabide turistikoaren babes berezia.

1. Baliabide turistikoaren kalitatea berariaz babestu eta luzaz modu jasangarrian mantendu ahal izateko, Foru Komunitateko Administrazioak eremu batzuk betetzat edo trinkotasun bereziko-tzat jotzen ahalko ditu eta eremu horretan jarduera turistikoak antolatzen.

2. Adierazpen hori dela eta, ukituriko udalek txostena eman eta gero egiten da eta eremuko jarduera turistikoak antolatzeko plan bat onetsiko da. Plan horrek turismoa mugatuko du, baliabide turistikoari kaltea edo kalitateko bermerik gabeko sarbideak saihesteko.

VI. TITULUA Turismoaren zabalkundea eta sustapena

41. artikulua. Eskumenak.

1. Nafarroa helmuga turistiko gisa sustatu eta bultzatzea Foru Komunitateko Administrazioari dagokio, Estatuko Administrazio Nagusiaren eta toki entitateen eskumenak galarazi gabe.

2. Esleiturik dauzkan Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuak erabiliko ditu eskumenak.

3. Jarduera turistikoak sustatzerakoan irizpide hau hartuko da kontuan: Nafarroa, bere osotasunean, helmuga turistiko bakarra dela eta beraz Nafarroako Foru Komunitatearen ezaugarriek agertu beharko dutela.

Aurreko lerroaldean xedaturikoa deusetan galarazi gabe, helmuga turistikoaren berariazko kanpainak sustatzen ahalko ditu, non Foru Komunitateko osagai edo eskualde berezi bat nabarmendu edo zehaztu baita.

42. artikulua. Zabalkunde turistikoa.

Zabalkunde turistikoaren arloan, Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroaren irudia helmuga turistiko gisa bultzatu eta sustatzeko egoki diren neurriak hartuko ditu.

Hon hemen haren egitekoak, lankidetzaren publiko eta pribatuaren barruan, Estatuaren eskumenak galarazi gabe:

a) Nafarroan zabalpen turistikoko programa eta kanpainak prestatu eta burutzea.

b) Nafarroaren zabalkunde eta hari buruzko argibideetarako liburuxka turistikoa argitaratzea.

c) Gaikako turismoa eta zenbait produktu edo helmuga turistikoa xede dituzten plan eta programak garatzea.

d) Kalitateko marka eta elkarteak indartu eta haiei eragiteko eginkizunak bultzatzea.

e) Turismo argibideetarako sistema eragingarriak garatzea.

43. artikulua. Sustapena.

1. Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako sektore turistikoa sustatuko du, betiere esleituriko baliabide publikoen eragingarritasuna helburu, kalitate turistikorik handiena lortzearren.

2. Horretarako, turismoaren arloan eskudun den departamentuak dirulaguntzak ematen ahalko ditu jarduera turistikoen pizgarri izan daitezen, bereziki enpresa eta egonleku turistikoen kalitatearena.

3. Haiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko orotariko araubidearen menpe egonen dira.

44. artikulua. Argibide turistikoa.

1. Erakunde ofizialek Nafarroako Foru Komunitateari buruz edozein hedabidetan ematen dituen argibide turistikoa foru lege honetako 4. artikuluan xedaturiko irizpideei jarraituko zaizkie eta zabalkundea egiazko, berdintsu eta eragingarria izanen da.

2. Udalen autonomia galarazi gabe, Foru Komunitateko Administrazioak beharrezkoak diren tresnak sortuko ditu argibide turistikoen arloan ekitaldi antolatuak egiteko eta arlo honetan toki entitateei behar dituzten laguntzak emanen dizkie, Nafarroako argibide turistikotarako sistema sendotzeko, betiere zerbitzuen berdintsutasuna, ekitaldia adierazten duen irudiaren ezaugarritasuna eta informazioen euskarrien modernizazioa irizpide.

45. artikulua. Dinamizazio planak eta helmugetako kalitatekoak.

1. Turismoaren arloan eskumena duen Foru Komunitateko Administrazioako Departamentutik Nafarroako eskualdeen dinamizazio turistikoko planak bultzatuko dira.

2. Horrekin batera, helmuga turistikotako kalitateko planak sustatuko dira eta kalitate turistikoko gutunak sortuko.

3. Foru Komunitateko Administrazioak eskualde batean turismoari dagokionez lehentasunez jarduteko zabalkunde bereziko plan edo neurriak onartzen ahalko ditu, egoera ekonomiko kaxkara edo langabezia dela eta edo balio turistikoen araber.

46. artikulua. Sektore turistikotako profesionalizazioa.

Foru Komunitateko Administrazioak sektore turistikoko langileen profesionalizazioa sustatuko du. Horretarako prestakuntza planak bultzatuko ditu, bai orotarikoak, bai sektorekakoak.

47. artikulua. Elkartegintzaren sustapena.

Foru Komunitateko Administrazioak sektore turistikotako barruan elkartegintza sustatuko du, bai esparru publikoan bai pribatuan, haren ahalginak bildu eta haren jarduketak koordinatzeko.

VII. TITULUA **Disziplina turistikoa**

I. KAPITULUA **Ikuskapen turistikoa**

48. artikulua. Turismoaren ikuskapena.

Foru Komunitateko Administrazioan turismoaren arloan eskudun den departamentuari dagokio turismoari buruzko arautegia betearazteko ikuskatzea.

49. artikulua. Eginkizunak.

Turismoaren arloan eskudun den departamentuaren ikuskapen zerbitzuek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Turismoaren arloan indarra duten xedepanak zaindu eta begiratzea eta behar diren txostenak egitea.

b) Erabiltzaileen erreklamazio eta salaketan xede diren gertaerak begiratu, azpiegitura turistikoen betebeharrei buruz informatu eta dirulaguntzak jaso dituzten inbertsioak burutu direla egiaztatzea.

c) Instalazio eta zerbitzu turistikoen kalitatea zaintzea, haien baldintzak begiratu.

d) Lege edo erregelamenduen bidez esleitzen zaizkion beste ikuskapen eginkizunak.

50. artikulua. Ikuskapen turistikoko zerbitzuak.

1. Ikuskapen turistikoko zerbitzuetako langileak, beren eginkizunetan dihardutenean, agintaritzat joko dira eta indarra duten arauak agintariei ematen dizkieten babes eta eskumenak izanen dituzte. Beren eginkizunak hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dutenean, Foru Komunitateko Administrazioako edo beste administrazio eta erakunde publikoetako langile eta zerbitzuen lankidetzara eskatzen ahalko dute.

2. Ikuskatzaileek kreditazio bat izanen dute, beren eginkizunetan jardutean erakutsi beharko dutena.

3. Ikuskapena betiere konfidentziala izanen da. Ikuskatzaileek isiltasun profesionala zehatz-mehatz bete beharko dute.

51. artikulua. Lankidetzara beharra.

1. Enpresa eta jarduera turistikoen titularrek turismo ikuskapeneko zerbitzuko langileei, beren eginkizunetan dihardutenean, jarduera turistikolari loturiko bulego, instalazio, agiri, liburu eta erregistroak eskuratzen eta askatasunez aztertzen utzi beharko diete. Haien ordezkariak eta haien menpekoak eginbehar bera izanen dute, egonlekuaz edo jarduera turistikoz arduratzen badira.

2. Ikuskapenak, bere eginkizunetan diharduela beharrezkotzat jotzen badu, arazoak emanda, interesatuei eskatzen ahalko die bere egoitzan ager daitezela, deialdian aipatzen den konturako.

3. Turismoaren arloan eskudun den departamentuak baliabideak ezarriko dituzte eginiko ikuspenak eta haien emaitzak kontrolatu eta ezagutarazteko.

4. Ikuskapen zerbitzuek beren eginkizunetan aritzeko behar dituzten argibide guztiak eskatzen ahalko dizkiete erakunde ofizialei, langile erakundei, sindikatuari eta kontsumitzaile elkartei.

52. artikulua. Ikuskapeneko aktak.

1. Ikuskaldi bakoitzean, ikuskatzaileak akta bat egin beharko du, haren emaitza biltzen duena.

2. Aktak honelakoxeak izanen dira.

a) "Turismoari buruzko arauekin bat".

b) "Ikuskapenari eragozpenak".

c) Ohartaraztekoak, erraz betetzen ahal diren betebeharrak ez betetzeagatik, horregatik erabiltzaileendako kalterik sortzen ez bada.

d) Turismoari buruzko arauak hauts ditzaketen gertaerak adieraztekoak.

3. Diharduen ikuskatzaileak eta egonleku edo jarduera turistikoen titularrak edo honen legezko

ordezkariak eta, halakorik ezean, momentu horretan arduratzen denak, kopia bat gordeko duenak izenpetu beharko dute akta. Izenpe horrek frogatuko du aktaren eta haren edukiaren berri duela, baina ez du esan nahi ados dagoela. Pertsona horiek akta izenpetu nahi ez badute ikuskatzaileak halaxe adierazi beharko du aktan eta zergatik ere bai, eginbide batez.

4. Ikuskapen zerbitzuek beren eskumenetan dihardutela egiten dituzten aktetan agertzen diren gertaerak egiazkotzat joko dira, kontrakoa frogatu ezik.

II. KAPITULUA **Zehapen araubidea**

1. SAILA **Arau-haustekak**

53. artikulua. Arau-hauste administratiboak.

1. Turismoaren arloko arau-hauste administratiboak dira foru lege honetan aipatzen diren egite edo ez-egiteak.

2. Turismoaren arloko arau-hauste administratiboak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Foru lege honetan aipatzen diren arau-haustek honelaxe preskribatuko dute: oso larriak hiru urtera, larriak bi urtera eta arinek sei hilabetera.

Arau-haustek preskribatzeko epea araua hausten denetik hasiko da.

Arau bat behin eta berriro hautsiz gero, preskribatzeko epea hautsi zeneko azkeneko aldian hasiko da edo bestela araua hautsi zuen azkeneko egintza egin zenean.

Preskripzioa zehapen espedientea irekitzean etengo da, interesatuari jakinarazita.

54. artikulua. Arau-hauste arinak.

Hona hemen arau-hauste arinak:

a) Kontraturiko zerbitzuak haien izaeraren eta hitzarturiko baldintza eta zehaztapenen arabera ez egitea.

b) Egonleku turistikoko gela, instalazio, altzariak eta tresnak aurkeztu eta funtzionatzeko akatsak.

c) Erabiltzaileak ongi ez tratatzea.

d) Bezeroari prezioaren parte bat ezkutatzea, eskatu ez dituen edo adierazi ez diren prestazioak emanez gero.

e) Kontratu ez diren zerbitzu edo ondasunak erabili edo kontsumitzera behartzera, edo baldintza aldatuetan.

f) Turismoaren arloan eskudun den administrazioari egonlekuaren titulartasunaren aldaketak edo turismoari buruzko arautegiak eskatzen dituen argibideak ez jakinaraztea.

g) Enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendu egokirako eta erabiltzailea babesteko bermetako nahitaez bete beharreko kontratu, agiri, faktura, argibide edo erregistroei buruzko arauak ez betetzea.

h) Kontratua bukatutzat emateko edo egin beharreko zerbitzuak bertan behera uzteko arauak ez betetzea.

i) Erreklamazio orririk ez edukitzea edo eduki bai baina eskatuz gero horrelakorik ez ematea.

j) Turismo enpresarekiko harremanen baldintzak frogatzen dituzten agiri guztiak eta betiere lege ezarritako fakturak bezeroari ez ematea.

k) Erregelamendu bidez ezarri bezala egonlekuetan nahitaez erakutsi beharreko ezaugarriak ez edukitzea edo edukita ere eskaturiko betebeharrak ez betetzea.

l) Produktu eta zerbitzuei eta haien prezioei buruzko publikitatea arautzen duten xedapenak ez betetzea.

m) Zerbitzu batzuk arautu ditzaketan agindu berezian publikizaterik eza.

n) Egonlekuaren egitura, tamaina edo ezaugarriak administrazioari jakin gabe aldatzea, hala behar denean.

ñ) Kanpaleku turistikoetan kanpalekuetatik kanpoko osagaiak behin eta berriro paratu edo kokatzeko baimena ematea.

o) Eskuarki, turismoari buruzko arautegian ezarritako betebeharrak, eginbehar eta debekuak ez betetzea, baldin eta larriak edo oso larriak ez badira.

55. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hona hemen arau-hauste larriak:

a) Legez gaiturik ez dagoen norbaitek zerbitzu edo jarduera turistikoak egin edo ematea.

b) Jarduera turistiko bat sailkatu edo bertan jardun ahal izateko inskripzio, titulu, lizentzia, jakinarazpen edo nahitaezko gaikuntzarako betebeharrak edo baldintzak ez betetzea edo aldatzea.

c) Sailkapenaren arabera dagozkion izen, iragarki edo ezaugarrien orde besterik ez erabiltzea.

d) Kontratuaren xede den zerbitzuren bat ez ematea edo kalitate, kantitate edo izaerako baldintzak ez betetzea.

e) Bezeroei askatasunez sartzen ez uztea edo haiek kanporatzea, arrazoirik gabe.

f) Zerbitzuak publikatean agertzen diren prezioak baino garestiago ematea edo prezioei buruz indarra duten xedapenak ez betetzea.

g) Turismo ikuskapenari edo administrazioko beste organo eskudun batzuei uko egin edo eragozpenak jartzea.

h) Jarduera turistikoaren subjektuek eskaintzen dituzten zerbitzuetan funtsezko osagaiei buruz engainua edo nahasmena sortzen ahal duen publikitatea.

i) Zerbitzua postu erreserbaren arabera ez ematea, daukan postuak baino gehiago kontratatzeagatik.

j) Azpiegitura edo funtzionamenduko akatsak zuzentzeko Turismo Administrazioak emaniko epeak arrazoirik gabe ez betetzea.

k) Turismoari buruzko arautegiak eskatzen dituzten aseguruaren bermeen zenbatekoa eguneraturik ez edukitzea.

l) Kanpaleku turistikoetan kanpinlari egoiliarak onartzea eta debeku diren kanpatze banakoak paratzea.

“Kanpinlari egoiliarak” dira kanpaleku turistikoan bizi ohi direnak.

m) Zerbitzu turistikoak emateko lege gaiturik dauden bulego, lokal, ibilgailu edo pertsonak erabiltzea edo gaiturik egonda ere ezin badira jadanik erabili.

n) Zehatzak ez diren argibideak ematea edo gezurrezko agiriak aurkeztea.

ñ) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

Artikulu honi dagokionez, “berrerortzea” da urtebetean arau-hauste bera bitan baino gehiagotan egitea, bide administratiboan ebazpen irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

56. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hona hemen arau-hauste oso larriak.

a) Turismoari buruzko arautegia haustea, Nafarroaren interes turistikoari, kasuan kasuko lan-

bide edo jarduera turistikoari edo orokorrean bezeroei kalte larria egiten badie.

b) Erabiltzaileak bereizkeriaz tratatzea, baldin eta arraza, sorterri, sexu, erlijio, iritzi edo norberaren edo giza-taldearen beste edozein inguruabarrerengatik egiten bada.

c) Egonleku bat ireki edo jarduera turistikoan aritzeko titulu, lizentzia edo nahitaezko gaikuntza inskribatu edo emateko funtsezko kontuak engainuz aldatzea.

d) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

Artikulu honi dagokionez, "berrerortzea" da urtebetean arau-hauste bera bitan baino gehiagotan egitea, bide administratiboan ebazpen irmoaren bidez halaxe adierazi denean.

57. artikulua. Subjektu erantzuleak.

1. Turismoaren arloko arau-hausteen subjektu erantzuleak dira enpresa, egonleku edo jarduera turistikoaren titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak. Titulartzat joko dira, bestela frogatu ezik, nahitaezko lizentzia edo erregistro administratiboa bere izenean daukatenak. Arau-haustea lanbide edo jarduera bat gaikuntza administratiborik gabe egitea baldin bada, erantzulea jarduera egiten duen pertsona fisiko edo juridikoa izanen da edo emaniko zerbitzuaren faktura egiten duena.

2. Enpresa, egonleku edo jarduera turistikoen titularrak enpresa, egonleku edo jardueratik kanpoko edozeinek eginiko arau-hausteen erantzuleak izanen dira, zuzenbidearen arabera arau-hausteen kontra egin daitezkeen egintzak galarazi gabe, dagokionari oraindu ahal izateko.

2. SAILA Zehapenak

58. artikulua. Zehapen motak.

Foru lege honetan eta turismoaren arloko beste xedapenetan xedaturikoaren kontrako arau-hauste administratiboek zehapen hauek sortuko dituzte.

a) Ohartaraztea.

b) Isuna.

c) Jarduera turistikoak bertan behera uztea edo egonlekua ixtea.

d) Titulua kentzea edo egonlekua ixtea.

2. Indarra duen arautegiaren arabera bere jardueretan aritzeko nahiatezko gaikuntza ez edukitzeagatik egonlekuak edo instalazioak ixtea ez da zehapentzat hartuko ez eta gaikuntza hori lortu

arte bertan behera hartzen ahal den erabakia ere, hura lortzeko eskabidea izapidatzen ari denean. Turismoaren arloan eskudun den departamentuko titularrak erabikiko du ixtea edo bertan behera uztea, interesatuari entzun ondoren. Neurri hori hartuko da zehapen espedientea irekitzeko aukera deusetan galarazi gabe.

3. Arau-hauste oso larriengatik ezarriko zehapenek hiru urtera preskribatuko dute, arau-hauste larriengatik ezarrikoek bi urtera eta arau-hauste arinengatik ezarrikoek urtebetetera.

Zehapenek preskribatzeko epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik hasiko da.

Preskripzioa etengo da exekuzio prozedura hastean, interesatuari jakinarazita.

59. artikulua. Zehapen administratiboak.

Arau hauste arinak zehatzen ahalko dira:

a) Ohartareztearekin.

b) 1.200 euro arteko isunarekin.

2. Arau hauste larriak 6.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

3. Arau-hauste oso larriak 60.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

4. Zehapen osagarri edo nagusi gisa, jarduera bertan behera uzten ahalko da edo egonlekua edo instalazioa ixten, gehienez ere sei hilabetez, arau-hauste larrietan, eta gehienez ere urtebetez arau-hauste oso larrietan.

5. Arau-hauste oso larrietan berreroriz gero, zehapen osagarri edo nagusi gisa, titulua kentzen ahalko da eta egonlekua behin betikoz ixten.

6. Jarduerak bertan behera utzi edo egonlekua ixteko erabakia kasuan kasuko mugapeko Udalari jakinaraziko zaio.

7. Arau-hauste oso larrietan zehapen osagarri gisa arau-haustek zehapenaren xede den jardueran aritzeko Nafarroako Foru Komunitateari eskatu eta lorturiko edozein dirulaguntza bertan behera uzten ahalko da edo behin betikoz kentzen.

60. artikulua. Zehapenen mailaketa.

Zehapenak proportzionaltasunaren arabera ezarriko dira, kontuan hartuz arau-haustea egitean gertatu diren gorabeherak, bereziki:

a) Arau-hausteetan asmo txarrik egon den edo haietan berrerori den.

b) Pertsonen eginiko kaltea.

- c) Ukituriko pertsonak zenbat diren.
- d) Behar bezala lortu ez den etekinaren zenbatekoa.
- e) Enpresaren gaitasun ekonomikoa.
- f) Sektore turistikoarendako eta Nafarroaren irudi turistikoarendako ondorio kaltegarriak.
- g) Berrerortzea.
- h) Prozedura irekitzeko akatsak espediente izapidatzen ari deino konpontzea.

61. artikulua. Isun hertsatzaileak.

Aurreko artikuluetan aurreikusiriko zehapenak galarazi gabe, turismoaren arloan eskudun den departamentuak, arau-haustea bertan behera utzi edo bukatzeko edo hala bada ez-egitea konpontzeko errekerimenduan ezarririko epeak bukatu ondoren, Administrazio publikoen araubide juridikoari eta guztiendako administrazio prozedurari buruzko Legeko 99. artikuluan xedaturikoaren arabera, isun hertsatzaileak ezartzen ahalko ditu. Haietariko bakoitzaren zenbatekoak arau-hausterrako ezarririko isunaren ehuneko hamar eginen du gehienez.

62. artikulua. Organo eskudunak.

Foru lege honetan aipatzen diren zehapenak ezartzeko organo eskudunak hauexek dira:

- a) Arlo horretan eskudun den departamentua, eskumena Nafarroako Gobernuari ez badagokio.
- b) Arau-hauste oso larrietarako, Nafarroako Gobernua, egonlekua behin betikoz itxi behar baldin bada.

3. SAILA Zehapen prozedura

63. artikulua. Irizpideak.

Turismoaren arloan zehapenak ezartzeko ahalmena Administrazio publikoen araubide juridikoari eta guztiendako administrazio prozedurari buruzko Legeko IX. tituluaren edukiekin bat etorriko da.

64. artikulua. Hasiera.

1. Turismoaren arloan zehapenak ezartzeko prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunak erabakita, jarduketa hauetariko edozeinen ondorioz:

- a) Turismo Ikuskapenak eginiko aktaren ondorioz.

b) Ustezko arau-hauste baten jakinaren gainean dagoen agintaritzaren edo administrazio organoak jakinarazita.

c) Egonleku turistikoetako erreklamazio orrialdeetan kexa edo salaketaren ondorioz.

d) Indarra duen arautegian ezarririkoaren arabera aurkezturiko erreklamazio edo salaketaren ondorioz.

e) Nafarroako Foru Komunitatean turismoaren arloan eskudun den organoak hala erabakita, edozein baliabideren bidez, ustezko arau-hauste baten berri duenean.

2. Prozedurari ekin baino lehen, egintzak argitzeko alde aurretik informazioa eskatzen ahalko da. Horren arabera, gertaerak aztertu ondoren, erabakiko da arau-hausterik badenentz, eta, hala bada, zehapen prozedurari ekinen zaio.

65. artikulua. Badaezpadako neurriak.

1. Salbuespen gisa, segurtasuna, zerbitzu turistikoaren erabiltzailearen interes ekonomikoetarako arrisku larria, edo Nafarroako irudi turistikoarendako kalte larri eta nabarmena direla eta, erabakitzen ahalko da badaezpada egonlekua berehala edo instalazioak ixtea eta jarduera bertan behera uztea, akatsak konpontzeko behar deneino, gehienez ere espedientea bukatutzat eman arte.

2. Espedientea irekitzeko agintaritzaren eskudunak izanen du eskumena badaezpadako neurria hartzeko, arrazoiak emanda, interesatuari entzun ondoren.

66. artikulua. Adiskidetzeta eta konpontzea.

1. Zehapen prozedura izapidatu aitzin edo horrekin batera ustezko arau-hausleari aukera emanen zaio eginiko kaltea ordaintzeko edo egini-ko akatsak konpontzeko.

2. Borondatezko adiskidetzeta, zerbitzu turistikoak ematen dituzten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileei eginiko kaltea ordaintzeko, interes partikular bat nagusi deneko erreklamazioetan egiten ahalko da bakarrik, interes hori zenbatzen ahal denean.

Bi aldeak kontsumoaren arbitraje sistemaren esanetara jartzeak ere borondatezko adiskidetzaren ondorioak izanen ditu.

3. Akats administratiboak konpontzen ahalko dira bakarrik arau-haustea eta haren ondoriozko kaltea oso handiak ez badira.

4. Adiskidetzeta eta konpontzeta berekin ekarriko dute jarduketak artxibatzea edo haien sailkapena arintzea.

5. Adiskidetu eta konpontzeko prozeduren izapidaketak arau-haustearen preskizioa eta zehapen prozedurak bukatutzat emateko epea etengo dituzte.

67. artikulua. Zigor arlo jurisdikzionala.

1. Administrazioaren ustez arau-hauteak legez kontrakoak eta zigorren xede badira, organo administratiboak halaxe jakinaraziko dio Ministerio Fiskalari eta ez du zehapen prozedurarekin segituko, agintaritzak judizialak bere iritzia adierazi arte.

2. Halaber, organo administratiboak prozedura bertan behera utziko du zehapen prozedura administratiboaren xede diren egintzetarako zigor prozedura bat egiten ari dela jakin badeza.

3. Zigor arloko zigorrik ezarri gero zehapen administratiborik ez da ezarriko. Deliturik edo hutsegiterik atzematen ez bada, Administrazioak zehapen prozedurarekin segitzen ahalko du, jurisdikzio eskudunak frogatutzat jotzen dituen gertaerak oinarri hartuta.

68. artikulua. Iraungikortasuna.

1. Zehapen prozedurak hasteko erabakia hartzen denetik hasita iraungiko dira, haien gaineko ebazpenik eman edo jakinarazi ez bada.

2. Aurreko idatz-zatian ezarriko epetik hauek kenduko dira: interesatuari egotz dakizkiokeen atzerapenak, Administrazio publikoen araubide juridikaori eta guztiendako administrazio prozedurako 42. artikuluko 5. idatz-zatian eta foru legeko 65. artikuluan aurreikusiriko kasua. Gainera, legez ezarrikoaren arabera ebazpena emateko epeen luzapenak ere hartuko dira kontuan.

3. Espedientea artxibatuz gero, halaxe jakinaraziko zaio salatuari.

69. artikulua. Exekuzioa eta helegiteak.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren arabera zehapenak ezartzen dituzten ebazpen administratiboak exekutiboak izanzen dira bide administratiboa bukatutzat ematen dutenean.

2. Zehapen prozedurako ebazpenen aurka, interesatuek bidezko diren helegiteak aurkezten ahalko dituzte, Nafarroako Foru Komunitateko

Gobernua eta Administrazioa arautzen dituzten foru legean, Administrazio publikoen araubide juridikaori eta guztiendako administrazio prozedurari buruzko Legean eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko Legean xedaturikoarekin bat.

70. artikulua. Zehapenen erregistroa.

1. Turismoaren arloan eskudun den departamentuan zehapen erregistro bat izanzen da. Bertan foru lege hau hausteagatik ezarriko zehapen irmoak idatziko dira.

2. Ohar horiek zehapenak preskribatzeko epearen ondoren ezabatuko dira.

Xedapen iragankorra

Foru lege honek indarra hartu baino lehen hasita dauden zehapen prozedurak hasteko momentuan indarra zuten xedapenen arabera izapidatu eta bukatuko dira.

Xedapen indargabetzailea

1. Foru lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira, bereziki Diziplina turistikaori buruzko azaroaren 17ko 14/1997 foru legea.

2. Foru lege honek indarra hartzean Ministerioak 1972ko abuztuaren 11n emaniko Agindua ez da Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko. Horren bidez Enpresa turistikaetako egonlekuen zuzendarien estatutua onetsi zen.

Azken xedapenak

Lehena. Foru agindu honetan aurreikusiriko zehapen zenbatekoak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuei buruzko Legeetan aldatu eta eguneratuko dira.

Bigarrena. Esku ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta turismoaren arloan eskudun den kontseilariari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzaten.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1.- Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko irailaren 26ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektu

2002ko abuztuaren 9ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargune Parlamentuko Taldeak alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go. Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2gn. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

Espainiako Konstituzioaren 41. artikulua ezarritzen duenez, botere publikoek gizarte segurantzako araubidea mantenduko dute, beharizan egoeretan prestazio aski bermatuko duena. Beharrezkoa da Espainiako eskualdeen arteko gizarte desorekak eskualdez eskualde konpentsatzea, bizitza maila aldatu egiten baita batetik bestera. Halatan, eztabaidaezina da eskualdeen arteko desoreka hori zuzentzeko osagarri bat ezarri beharra.

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege

Organikoaren 44.17 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak gizarte laguntzaren arloan eskumen osoa bereganatua du. Agindu horren babesean Nafarroako Parlamentuak Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen.

Foru lege horretan aurreikusten da, arlo horretan egin beharreko lehentasunezko jarduketan barruan, sostengu ekonomikoa dela bazterketa jasaten duten pertsonak gizarteratzen laguntzeko neurrietako bat.

Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurkako planak ezartzen du oinarritzko errenta egokitu egin behar dela, Nafarroan errenta horretaz baliatzen diren familiek egun dituzten behar eta ezaugarrietara hain zuzen ere, eta pobrezia larrian dauden familia horiei gutxieneko dirusarrerara batzuk bermatu behar zaizkie.

Nafarroan Estatuko batez besteko soldatarik altuenetakoa daukagu: 253.000 pezeta. Nafarroan 26.013 alargun daukagu, 61.349 pezetako batez besteko pentsioa dutenak; horietatik % 88rena lanbidearteko gutxieneko soldata baino txikiagoa da eta % 10 baizik ez dago 70.000etik 100.000 pezetara bitartekoa. Datu horiek esanguratsuak dira berez, eta nahiko arrazoi arlo politikoan lehenbailehen jarduteko desberdintasun horiek puskatzearren.

Bestalde, Nafarroan, batez besteko pentsioa, 2001eko uztailaren 1ean, 101.367 pezetakoa zen, eta nabarmena da alde handiak daudela pentsio batzuen eta besteen artean.

Beraz, emakume eta gizon alargunekiko diskriminazioa dago, hala Nafarroan nola Estatu osoan. Gure erkidegoan, alde horiek konpontzerik bada, alargun pentsio gutxienekoei laguntza bereziak emanez lanbide arteko gutxieneko soldata berdindu arte.

Foru lege honen xedea da alargun pentsio urrirenak hobetzea eta, bestalde, gizartean dagoen

kezka isla da, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriz adierazi duen bezala.

1. artikulua. Xedea.

Alargun pentsioak jasotzen dituzten pertsona guztientzat prestazio bat ezartzen da, legeria indardunean aurreikusiriko beste edozein motatako gizarte baliabide eta prestazio ekonomikoen osagarri eta subsidiarioa, unean-unean indarra duen eta erakunde eskudunak onetsiriko lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 100erainokoa.

Prestazio hori eskualdeen arteko desoreka konpentsatzeko izaera izanen du soil-soilik, eta bizitzeko minimoa bermatu behar du; hortaz, Nafarroan bizitzea eta nafar izaera izatea exijituko da.

2. artikulua. Zenbatekoa.

Alargun pentsioak jasotzen dituztenen baliabide ekonomikoak osatu eta lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 egin dezaten behar den zenbatekoa izanen du prestazio osagarri horrek.

b.- Prestazio honen izaera subsidiario eta osagarria dela-eta, bakar-bakarrik aplikatzen ahalko zaie gizarte babes publikoaren sistemako gutxieneko osagarria jasotzeko eskubidea dutenei, sistema horretan urtero ezartzen diren kapital nahiz lan errenten mugekin. Pentsioaren zenbatekoa alargun pentsio gutxienekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren artekoa bada, bi zenbateko horien arteko aldea izanen da prestazio osagarria, kapital nahiz lan errenten bidez lortutako besteren dirusarreraren mugak kontuan hartu eta gero. Urtero ezarriko da zenbat diru jasoko duen prestazio osagarri hori jaso behar duen pertsona bakoitzak.

3. artikulua. Prestazio osagarria eskatu dutenen eta prestazio horren titularren erantzukizuna.

Interesa duten pertsonak, betiere, eskabidean jartzen dituzten datuen erantzule izanen dira. Nafarroako Gobernuak, emaniko informazioa

benetakoa dela egiaztatzeko, datu guztiak begiratu dituzte, berak dituen fitxategiak erabilia.

4. artikulua. Prestazio osagarriaren amaiera.

Gutxieneko osagarria amaitzeko arrazoi berberengatik amaituko da alargun pentsioen prestazio osagarria, hark sorrarazten baitu honakoa, jasotzeko mugari dagokiona salbu, unean-unean indarra duen lanbide arteko gutxieneko soldata izanen baita. Berrezarpena eskatu egin beharko da, eta eskaera egin ondoko lehen hilean izanen ditu ondorioak.

5. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

Alargun pentsioaren prestazio osagarriari aurre egiteko, kasuan kasuko kontusailaren kargura esleituko da aurreko artikuluetan ezarritako betebeharreri aurre egin ahal izateko beharrezkoa den diru kopurua.

6. artikulua. Ondorio ekonomikoak.

Ebazpenaren ondorio ekonomikoek atzerako eragina izanen dute, eskabidea egin aurreko hiru garren hilabetetik aurrera, zehazki.

Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean Nafarroako Gobernuak foru lege honetan ezarritako neurriak ezartzeko aukera izan dezaketen gizataldeei buruzko txosten sektoriala aurkeztuko du, nahi gabeko desorekak eta bidegabekeriak zuzentzearen.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Gizarte Ongizate kontseilariari esku ematen zaio foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek 2003ko urtarriaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2gn Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea (2002ko uztailaren 12ko 84. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) presako prozeduraz tramitatu eta ekainaren 27ko Osoko Bilkuran onetsi zen. Haren irizpenaren bozketen ondorioz, ordea, akats bat gertatu zen xedapen gehigarri berrien eta xedapen iragankor bakarraren txanda ailegatu zenean, eta bozketaren emaitzak ez du islatzen Biltzarreko talderen baten nahia.

26/2002 Foru Legearen azken testuan, argitaratutakoan, antzeman daiteke bigarren xedapen gehigarriaren eta xedapen iragankor bakarraren edukiak, eremu ez-euskalduneko ikastolen finantziazioaren ingurukoak biak, nahasgarriak direla aplikatu beharreko edukia ulertzeko orduan eta, beraz, komeni da nahi gabeko akats hori zuzentzea arau aplikatzean segurtasun juridikoa bermatzeko.

Artikulu bakarra. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria indarrrik gabe gelditu da.

Azken xedapena.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra foru lege honek.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEEK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeek ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren egoera dela-eta, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako plan zuzentzailearen jarraipenari buruzko dokumentazioa aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barneko Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute batzordean lehenbailehen eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoaren gatazka egoerak Partzuergoan ordezkariak duten sei sindikatuek deitutako hainbat protesta eta kaleko mobilizazio ekarri ditu, gai askori buruz egindako salaketek

erantzunik jasotzen ez zutela ikusirik -materialen funtzionamendu eskasa, langile falta, prestakuntza eta segurtasun gabeziak, egiazko beharriari aurre egiteko azpiegitura eza eta oro har gero eta konplexuagoa eta adar askotako zerbitzu publiko horren definizio falta-. Egoerak, esan bezala, egozina eragin du eta salaketak kalean, zerbitzu honen egoera erreala eta bertan aritzen diren langileen eskakizunak ezagutzera emateko iritzi publikoari.

1997an Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoaren gaineko fiskalizazio txostena eskatu zion Kontuen Ganbarari; horren balorazioaren ondorioak izan ziren Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren 1994ko plan zuzendariaren gomendioak eta alderdiak zenbaitetan bete ez izana eta beste batzuetan betetzean izaniko erritmo motela. 2001ean eta 2002an, ganberak jaso du egoera horren testigantza, geroz eta okerrago dagoena, konpontzeko bidean jarri beharrean. 2001eko otsailaren 11n, partzuergo horren langileria batzordeko kideak agertu ziren Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean, eta salatu zuten 1994ko plan zuzendariaren zenbait alderdi sistematikoki ez zirela betetzen ari, baita Barne zuzendari nagusiaren eraginkortasun eza eta erantzukizuna arazo hauetan. Otsailaren 20an Lehendakaritza eta Barne kontseilaria agertu zen plan horren betetze mailaren balorazioa egiteko, eta haren ikuspegitik zerbitzuaren jarduren eta baliabideen balorazioa "oso positiboa" zela esan zuen. Aurten, apirilaren 23an, Biltzarren erabaki bat onetsi zen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena plan zuzendaria betetzera gai hauen inguruan: Foru Komunitaterako suhiltzaile parke zentralaren kokapena, hain zuzen ere

Gobernuko lehendakariak 1999ko inbestidurako diskurtsoan agindutakoen artean zegoena, suhiltzaileen lan baldintzekin zerikusia zuten gaien hobekuntza, 94ko planaren betetze maila aztertzea eta plan berria prestatzea zerbitzuaren ordezkarien alderdiak eta eskaerak barne.

Egungo emaitzek erakusten dute ez dela pausorik ematen ari aspaldiko eskaera horiek konpontzeko bidean; denboraren poderioz lan baldintzak okertu egin dira eta zalantzan jartzen dute giza ahaleaginean oinarritzen den zerbitzu publiko garrantzitsu horren eraginkortasuna; horrek arrisku larriko egoerak ekar ditzake bai suhiltzaileentzat bai laguntza hartzen duten biztanleentzat. Parlamentuko talde batzuei zuzenean eman zaigu Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoan pairatzen den gatazkaren okerrotzearen berri, eta galdatu zaigu, halaber, Nafarroako Gobernua premia dezagun behin eta berriz adierazitako hainbat gairi egiazko soluzioa ematera berehala.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuari aurkez diezaion, hiru hilabeteko gehieneko epean, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren 1994ko plan zuzendariak biltzen dituen alderdien betetzearen jarraipenari buruzko dokumentazio zehaztua, bai eta plana erabat betetzeko falta diren alderdiak gauzatzeko, bereziki hauexek:

– Langileak. Plantilla erreala eta plantilla organikoan aurreikusiriko lanpostuak egiaz betetzea, bereziki Iruñerako eta Iruñerrirako langileria eta etengabeko prestakuntza eta prestakuntza fisikoaren plana.

– Suhiltzaileen parkeak. Parke zentrala eraikitzea Nafarroan, Azkoiengo suhiltzaile parkea, suhiltzaile parkeen erreforma, Aralarkoa eta Miluzekoa (Iruñea) barne.

– Baliabide materialak: Erreskate eta salbamendu lanetarako baliabide tekniko eta materialez hornitzea.

– Baliabide ekonomikoak zerbitzuari eusteko, langile, azpiegitura fisiko eta bitarte material eta teknikoei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko gehieneko epean Suhiltzaileen Partzuergoko langileen batzordearen bilkurarako deia egin eta batzorde misto bat era dezan batzorde horren eta Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiaren artean, denen artean aztertzeko zerbitzuaren egoera, batik bat gai hauei dagokienez:

– plantillaren lan baldintzak.

– azpiegituren egokitasuna.

– Suhiltzaileen zerbitzuaren organigrama-egitura.

– prestakuntza plana.

– lanpostuen balorazioa.

– zerbitzuaren demokratizazioa.

Lortutako akordioak lehenbiziko puntuan aipatutako dokumentazioari erantsiko zaizkio eta haien helburu funtsezkoa gutxieneko puntu komunitara ailegatzea izanen da, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan izaten den etengabeko gatazka egoerari irtenbidea emateko.

Iruñean, 2002ko uztailaren 4an

Eledunak: Juan José Lizarbe Baztán eta José Miguel Nuin Moreno.

Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko ardoaren sektorearen ekoizpen-itxaropenei kalte egiten ahal dieten egungo arau eta lege aldaketak arbuatzen ditu

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko ardoaren sektorearen ekoizpen-itxaropenei kalte egiten ahal dieten egungo arau eta lege aldaketak arbuatzen ditu".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Foru Komunitateko ardoaren sektorearen ekoizpen-itxaropenei kalte egiten ahal dieten egungo arau eta lege aldaketak arbuatzeari buruzkoa, Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onetsi dezan, bidezkoa bada.

Zioen azalpena:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, gure erkidegoko ardoaren sektoreak une zeharo larria bizi du, nazioko Gobernuak hainbat ekimen baitarabil esku artean ardoa dela-eta, hala nola ardoari buruzko lege proiektua eta botilatzarrari buruzko legearen izenarekin ezagutzen dena (edari alkoholduen kontsumo okerrari aurrea hartzeko legea). Gobernuak proposatu bezala onesten badira, Nafarroan garrantzi handia duen ekonomiaren sektore horrengan eragin kaltegarria izanen dute.

Nekazaritzako janari-produktua da ardoa. Espainia nahiz Europa mailan arau ugari eman izan da haren gainean, eta milaka urteko kultur tradizioa du, nekazaritzako edo industriako beste

edozein produktuk ez bezalakoa. Izan ere, nekazaritzako produktua den aldetik, merkatu antolagun berekia du, eta haren bidez sektorekoaren alderdi guztiak arautzen dira, mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko ekintzak finantzatzeko dira eta funtsak banatzen dira ardoaren kontsumo inteligentea sustatzeko, hala kanpo merkatuan nola Europako Batasunaren nahiz bertako estatu kideen merkatuan.

Espainian badugu gure legea, 25/1970 Legea hain zuzen, bai eta nazio nahiz autonomia erkidegoen mailan sektorea luze eta zabal arautzen duten arauak ere. Badira, orobat, ardoaren mundu erakundea, ardoaren nazioarteko bulegoa, non 44 estatu kideetako ordezkariak mahastigintzari, enologiari eta mahastigintzako ekonomiari buruzko zuzentarau komunak ezartzen baitituzte eta "ardoa eta osasuna" alorreko adituen talde berezi bat.

Baina ardoari buruzko legea eta "botilatzarrari buruzkoa" ez dira sektoreari egun mehatxu egiten dioten bakarrak. Ardoaren produkzio-gaineratiboa murrizteko Cañete ministroaren mehatxuak ere arduratuta eduki behar gaitu, ez baitakigu zein zentzutan eginen den; halatan, ezin da ziurtatu ez duela eraginik izanen gure erkidegoan ekoizten diren ardoen gisako kalitateko ardoengan. Kontuan izan behar dugu Nekazaritza Ministerioak orain arte izan duen jarrerak ekarri duela egungo egoera; izan ere, mesede egin nahi izan die erkide guztiei berregituraketa funtsak eta landaketa berriak banatzerakoan, aintzat hartu gabe ardoaren merkatu antolagun komunean jasotzen diren printzipioen arabera kalitate irizpideak.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du Biltzarreko osoko bilkurak onetsi dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du aurre egin diezaion Nekazaritza Ministerioak egungo arau eta legeak aldatzeko izan dezakeen edozein plani, baldin eta gure erkidegoko ardoaren sektorearen ekoizpen-itxaropenei kalte egiten ahal badiete.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) aldatzeko egungo zirriborroa arbuiatzen du eta Nafarroako Gobernuari haren aurka egin dezan eskatzen dio

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) aldatzeko egungo zirriborroa arbuiatzen du eta Nafarroako Gobernuari haren aurka egin dezan eskatzen dio".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) aldatzeko egungo zirriborroa arbuiatzeari eta Nafarroako Gobernuari haren aurka egin dezan eskatzeari buruzkoa, Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onets dezan, bidezkoa bada.

Zioen azalpena:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, beharrezkoa da NPBa aldatzeko egungo zirriborroaren aurkako adierazpena egitea Nafarroako Parlamentuak; izan ere, etorkizunean aplikatzen denean, egun dagoen bezala aplikatzen baldin bada, eragin kaltegarria izanen du Nafarroako Foru Komunitateko landa eremuan, eta, horrenbestez, erkidegoak beharrezkoa duen lurralde orekan.

NPB berriaren egungo testua berresten baldin bada, % 20 gutxituko dira -2003 eta 2010 bitartean % 3 urtez urte- nagusiki nekazaritzan aritzen diren 8.000 nafarretako gehienek jasotzen dituzten laguntza zuzenak. 5.000 baino gehiago kalte-tuko ditu zuzenean, Batasuneko dirulaguntzen murrizketa urteko 5.000 euro baino gehiago jasotzen duten ustiatzei eragiten baitie. Laguntza

horiek, etorkizunean, ezin izanen dute, inola ere, ekitaldiko 300.000 eurotik goiti egin.

Arestikoaren ondorioz, sektorearen desprofesionalizazio nabarmena gertatuko da, batez ere familia-ustiatzeetan, eta horrek gure erkidegoaren gizarte nahiz lurralde desegituratzea areagotuko du; izan ere, laguntza egokirik ezak produktzioa gutxitzea ekar dezake, eta horrek, zalantzarik gabe, ekonomia jarduera gutxitzea ekar dezake berekin, landa eremuan ondorio zeharo negatiboa eraginez.

NPBaren erreforma berriak, kontsumitzaile garen aldetik, nafar guztiengan ere izanen ditu ondorio negatiboak, hura aplikatzeak janari kalitatea jaistea ekarriko duelako, hala kontrol eza-rengatik nola lehiaketaren areagotzeagatik. Ustiatzeetan superproduktzioa bilatu beharrak produktibitate ertain eta gutxiko lurrak bertan behera uztea ekarriko du, eta horrek, aldi berean, ingurumenean ondorio negatiboak eraginen ditu NPbaren aplikazioaren ondorioz.

Nafarroako Parlamentuak jarrera bat hartu behar du gure lehen sektorearen etorkizunerako munta handikoa den auzi honetan, eta, aldi berean, Nafarroako Gobernuari eskatu behar dio neutraltasunik eta anbiguotasunik gabe jardun dezan eta era aktibo batez egin diezaion aurre, NPB berriaren egungo testuaren aldaketa bilatuz.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du Biltzarreko osoko bilkurak onets dezan:

1. Nafarroako Parlamentuak Nekazaritza Politika Bateratua aldatzeko zirriborro berria negatibotzat jo eta haren aurka azaltzen da, uste baitu egungo testua Nafarroako Foru Komunitateko lehen sektorearen etorkizunerako kaltegarria dela.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NPbaren egungo zirriborroaren aurka egin dezan eta egin beharreko guztia egin dezan Espainiako Gobernuaren nahi Europako Batasunaren aitzinean egungo zirriborroa errotik alda dadin eta Nafarroako Foru Komunitateko nekazari eta abeltzainen sektorearen asmoak biltzen dituen beste bat ezar dadin horren ordez.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 23an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Galdera, Arte Ederretako Museoari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Arte Ederretako Museoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamen-

duaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Arte Ederretako Museoaren inguruan, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. 2001ean izandako bisitarien kopurua.
2. 2002ko lehen sei hilabetean izandako bisitarien kopurua.
3. Bisitariaren tipologia.
4. Museoaren segurtasunaren kostua.
5. Museoaren aurrekontua, zehazturik:
 - Langileena.
 - Mantentze lanena.

Iruñean, 2002ko uztailaren 16an.

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Alimentos Congelados (ACSA) enpresari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Alimentos Congelados S.A. (ACSA) enpresak, Azkoiengo planta itxi zuen iaz eta 238 pertsona utzi zituen kalean. Orain, berriz, Martzillako plantarako bideragarritasun plan bat eta 52 langileren kaleratzea iragarri ditu. Kaleratzeak dakarren dramari ukitutakoei horren berri emateko erabili den

despotismoa gehitu behar zaio. Eta horrez gain, ez dela irizpide objektiborik izan kaleratutakoak hautatzeko.

1. Jaso al du enpresa horrek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bat, zerga salbuespenik edo bestelako laguntzarik etaparen batean, gutxienez Nestlé erosi zuenetik 1994an 2000. urtera arte, alegia EQT enpresak Alimentos Congelados-Findus erosi zuen arte, eta erosketa haren ondotik ere? Hala bada, zehaztu zein, noiz, zenbatekoak, baldintzak etab.

2. Industria Departamentuak edo Nafarroako Gobernuaren beste ordezkari batzuek jakin al dute Chacón-Unzue enpresak, hura baitzen plana gauzatzeko ardura zuena, modu txarrean jokatu duela, eta inola ere ez gizalegez, eta ACSA enpresa ere jarrera horren erantzule dela?

3. Eskatu al du ACSAren enpresa batzordeak kontseilari andrearekin biltzea? Hala bada, zehaztu bilera hori egin den ala ez eta eskatu bada ere, bilera egin ez bada, zer dela-eta.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 2an.

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK, JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK ETA MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, José Miguel Nuin Moreno jaunak eta Milagros Rubio Salvatierra andreak Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrenak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko José Miguel Nuin Morenok eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko Milagros Rubio Salvatierrak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu diote Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Foru Komunitateko hainbat taldek eta herritarrek errekurtsioa paratu zuten Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua

onesteko erabakiaren eta ekintza-planak onetsi zituen 2001eko otsailaren 5eko erabakiaren aurka.

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak errekurtsio horiek baietsi eta 372/2000 Dekretuaren nahiz ekintza-planen deuseztasuna deklaratu zuen.

Zer egin du Nafarroako Gobernuak aipatu 372/2000 Dekretua –deuseza egun– garatze aldera?

Hauxe jakin nahi dugu: dekretu horren karietara deitu diren lanpostuak, deialdi horiek gaur egun zertan diren, bururaino eraman diren deialdiak, tramitean direnak eta abar.

Orobat jakin nahi dugu zer egin duten beste departamentu batzuek barneko seinaleak –bulegoak– nahiz kanpokokoak –errepideak eta abar–jartzearen alorrean.

372/2000 Dekretua onetsi zenez geroztik barneko nahiz kanpoko seinaleetan Gobernuak egindako aldaketek zer kostu izan dute?

372/2000 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi errekurritu zen? Zertan da errekurtsio horietako bakoitza? Zer eragin du horietako bakoitzean Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzak?

372/2000 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi baliogabetu ditu Gobernuak Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzari jarraikiz?

Iruñean, 2002ko abuztuaren 6an.

Foru parlamentariak: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena, José Miguel Nuin Moreno y Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa

ERRETIRATUTAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari buruzko galdera erretiratu izanaren berri baduela adieraztea. Galdera Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 68. zen-

bakian –2002ko ekainaren 19koan– argitaratu zen.

Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa publikorako deia egitea erabaki zuen.

– Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzea.

– Mota: lehiaketa publikoa.

– Egiteko epea: baldintza teknikoen pleguan adierazten dena.

– Aurrekontua: 43.955 euro (BEZa barne).

– Aurkeztu beharreko dokumentazioa: klausula administratibo partikularren pleguan adierazten dena; dokumentuek jatorrizkoak izan beharko dute, edo, bestela, notarioak zein administrazioak konpultsatutako kopiak.

– Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean, 2002ko urriaren 8ko eguerdiko 12ak arte.

– Proposamen teknikoak jendaurrean irekitzea (2. zenbakiko gutunazala): 2002ko urriaren 14ko eguerdiko 12etan, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan (Arrieta kalea, 12 –31002-Iruña–).

– Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea (3. zenbakiko gutunazala): 2002ko urriaren 18ko eguerdiko 12etan, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan (Arrieta kalea, 12 –31002-Iruña–).

– Klausula administratibo partikularren eta baldintza teknikoen pleguak lizitatzaileren eskura daude Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta kalea, 12-3. solairua), edo, bestela, Parlamentuaren webgunean (www.parlamento-navarra.es).

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

50/2002 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Onesten du Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1go. 50/2002 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 2koa, aurkeztu izanaren berri baduela adieraztea. Foru dekretuak onesten du Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina.

2gn. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

50/2002 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 2koa. Onesten du Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina

Abenduaren 10eko 27/2001 Foru Legeko azken xedapenetako lehenak, zeinak abenduaren 15eko Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko 20/1997 Legea aldatzen duen, baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari Nafarroako Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren babesean, gehienez urtebeteko epean eta legegintzako foru dekretu baten bidez modutu eta onetsi dezan Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruz indar duten lege xedapenen testu bategina.

Legeak ematen duen baimen hori baliatuz, bada, juzgatu da komeni dela Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina itxuratzea, bertan abenduaren 15eko 20/1997, abenduaren 29ko 20/2000 eta

abenduaren 10eko 27/2001 foru legeetako xedapenak biltzeko.

Nafarroako Kontseiluak behar den txostena eman du, eta legegintzako foru dekretu hau han esandakoen arabera da.

Horiek horrela, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta biko uztailarenbian egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Onesten da Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina, legegintzako foru dekretu honen eranskinean ageri dena.

Xedapen gehigarria

Legegintzako foru dekretu hau Nafarroako Parlamentura bidaliko da, Biltzarreko Erregelamenduko 158. artikulua agintzen duena betetzeko.

Xedapen indargabetzailea

1. Indargabetu egiten dira honako xedapen hauek:

a) Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legea.

b) Zenbait zerga aldatu eta beste zerga neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 20/2000 Foru Legeko 9. artikulua.

c) Abenduaren 10eko 27/2001 Foru Legea, zeinak Nafarroako Nekazaritza Ustiatgien Erregistroari buruzko abenduaren 15eko 20/1997 Foru Legea aldatzen duen.

2. Indargabetzen ere dira foru lege honek agintzen duenari kontra egiten dioten xedapen maila bereko nahiz apalagoko guztiak.

Azken xedapena

Legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen Textu Bategina

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen helburua hauxe da:

a) Nekazaritza Ustiategien Erregistroa sortzea, tresna publikoa izanen baita modu iraunkor, integratu eta gaurkotuan behar den informazio guztia eskuragai izateko Nafarroako nekazaritza egiturak modernizatu eta nekazaritzaren sektorea planifikatzeko politika bat behar bezala garatu ahal izateko, eta bai informazio estatistiko orokorra edukitzeko ere.

b) Nafarroako Nekazaritza Ustiategien ezaugarriak zein diren zehaztea.

c) behar adina jakingai izatea finkatzeko zer baldintza bete behar dituzten nekazaritza ustiategien laguntza publikoak lehenetsunez hartzeko.

d) Nekazaritza arloko elkarteak sor daitezen bultzatzea, tamaina egokiko nekazaritza ustiategiak erdiesteko bidetzat.

e) Nekazari gazteak bultzatzea ustiategi bidegarrien titular jarri daitezen.

f) Lurraren merkaturuan mugimendua handitzea, dela jabetzan dela errentan.

g) Zerga hobari sail bat ezartzea nekazaritza ustiategi lehenetsiei aplikatzeko.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege hau gehienik Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden nekazaritza ustiategiei aplikatuko zaie.

3. artikulua. Definizioak.

Foru lege honek agintzen duenerako, honako definizioak hartzen dira aintzat:

1. Nekazaritza jarduera, nekazaritza, abeltzaintza eta baso-laneko produktuak eskuratzeko behar diren lanak.

2. Nekazaritza ustiategia, haien titularrak nekazaritza jardueran aritzeko enpresa moduan antolaturik daukan ondasun eta eskubide saila, gehienbat produktuak merkaturatzeko asmoarekin, eta bere buruz unitate tekniko ekonomikoa osatzen duena.

3. Ustiategiko osagaiak, modu iraunkorrean nekazaritzarako aprobetxatzen diren landa ondasun higiezinak eta modu iraunkorrean nekazaritzarako aprobetxatzen diren beste ondasun guztiak; familia bakarreko etxebizitza bakartua, titularraren ohiko eta segidoko bizileku izaten dena eta landa-eremuan dena, bere nekazaritza-eranskinekin batera; nekazaritzako eraikin eta instalazioak; azienda; eta behar den makina erregistroan inskribatutako nekazaritzako ibilgailu eta makinak. Ondasun horiek guztiek ustiategian integraturik beharko dute, eta hari atxikirik, eta titularrak jabetzan, errentan, erabilera eta gozamen eskubidean edo haien jabeak emandako baime-narekin eduki beharko ditu haien erabilera eta aprobetxamendua. Hauek ere ustiategiko osagaiak dira: titularrak izan ditzakeen eskubide eta eginbehar guztiak, baldin eta ustiategiari atxikita badaude, horren barne titularrari makinariatik heldu zaion kuota zatia baldin nekazaritzako makinak komunean erabiltzeko elkarte baten kide bada.

4. Ustiategiaren titularra, nekazaritza jardueran aritzen den pertsona fisiko nahiz juridikoa, ustiategiko ondasun-eskubideak enpresa irizpideen arabera antolatzen eta ustiategia kudeatzetik etortzen ahal diren arrisku eta erantzunbehar zibil, sozial eta fiskalak bere gain hartzen.

5. Jarduera nagusiko nekazaria, honako baldintza guztiak betetzen dituen pertsona fisikoa:

a) Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribaturik dagoen ustiategi baten titular izatea.

b) Urtero gutxienez bere errentaren 100eko 50 bere ustiategiko nekazaritza jardueratik eskuratzeari, eta gutxienez erreferentziako errentaren 100eko 15.

Nekazaritzako errentatzat hartuko dira nekazaritza kooperatiba edo bestelako nekazaritza elkar-teen nahitaezko eta borondatezko fondoei egindako aportazioen aldera jasotzen diren ordainsariak, betiere titularra elkartekide aktiboa bada.

c) Ustiategiarekin zuzenean lotutako jardueretan urtean emandako denbora gutxienez bere lan denbora osoaren erdia izatea.

d) Gizarte Segurantzako nekazaritza araubide berezian bere gaingo langile gisa alta emanda

egotea, edo bere gaingo langileen edo autonomoen araubide berezian, bere nekazaritza jarduera zein den.

Hartarako, nekazaritza jardueratzat hartuko dira titularra, hauteskunde publiko batzuen ondorioz, ordezkari izateko instituzio publiko batean kide eta parte-hartzaile izatea, eta bai sindikatu, kooperatiba edo lanbideko ordezkari organoetan, betiere nekazaritza sektorekoak badira.

6. Nekazari gaztea, hemezortzi urte edo gehiago dituen baina berrogei egin ez dituen eta jarduera nagusiko nekazari gisa nekazaritzan aritzen den edo aritu nahi duen pertsona. Hartarako, adinez nagusi izatearen balio berekotzat hartuko da ezkontzaren bidez edo guraso boterea eman izanaren bidez emantzipaturik egotea.

7. Denbora partzialeko nekazaria, nekazaritza ustiategi baten titularra izan eta bertako nekazaritza jardueretan bere lan denbora osoaren bostena edo gehiago baina erdia edo gutxiago ematen duena.

8. Nekazaritzako lan unitatea, nekazaritza jardueran denbora osoan aritzen den norbaitek urtebetean egiten duen lana.

9. Lan errenta unitarioa, nekazaritza ustiategian sortu eta lan unitate bati egozten zaion diru errendimendua. Honela kalkulatu da: ustiategi horretako nekazaritzako lan unitateen kopurua, zati ustiatze marjina garbia edo soberakin garbia eta pagatu diren lansariak batzearen ondoriozko zifra.

10. Erreferentziako errenta, langile ez nekazarien urteko soldata gordin batez bestekoa.

LEHEN TITULUA

Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa

4. artikulua. Sorrera.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa sortzen da, foru lege honetan ezartzen diren baldintza eta ondorioekin.

2. Nekazaritza Ustiategien Erregistroa administrazio zerbitzu dohainekoa izanen da, eta haren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiategiak inskribatzea, lehenetsiak ala ez lehenetsiak sailkatzea, eta ustiategi lehenetsiak zein diren zertifikatzea, foru lege honetan agintzen dena betetzeko.

3. Nekazaritza Ustiategien Erregistroa kudeatzea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio.

4. Nekazaritza Ustiategien Erregistroaren datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautzen duenaren menpe egonen dira (izaera pertsonaleko datuak babesteko lege organikoa).

5. artikulua. Zein egintza diren inskribatzekoak.

1. Honakoak inskribatuko dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza ustiategiak, nor ere den haien titularra.

b) Ustiategian sortzen diren funtsezko aldaketak.

2. Inskripzioan honako datuak jasoko dira:

a) Ustiategiko titularra nor den edo nor diren, identifikazio pertsonala edo elkarte edo sozietatearen sorrerako frogagiria, titularra pertsona juridikoa bada.

b) Titularrak edo titularrek zer lanbide kualifikazio duten, ustiategia familiarra bada, eta sozioena elkarte gisako ustiategia bada.

c) Gizarte Segurantzaren afiliaturik egotearen dokumentua, bai ustiategi familiarra bada eta bai elkarte gisako ustiategia bada, sozioena.

d) Ustiategiko ezaugarri orokorrak, haren kokalekua eta orientazio produktiboa.

e) Zein lur atxikita dauden ustiategiari, zein ere den haien edukitza araubidea, katastroko identifikazioa, azalera, eta lehor-lur ala ureztalur, belarso, baso-lur, larre edo arboldegi diren.

f) Zein eraikin eta instalazio dituen nekazaritzarako, nahiz eta berak sortutako nekazaritza/abeltzaintzako produktuak eraldatze-koerabiltzen diren edo besteri erositakoak eraldatzeko, ustiatzeko asmoz.

g) Nekazaritzako eranskinak dituen etxebizitza.

3. Inskribatzerakoan, eta prozedura errazteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan Nafarroako nekazaritza ustiategiari buruz dauden datuak erabiliko dira.

4. Erregistro kontuetarako, hauek hartuko dira funtsezko aldatzat:

a) Nekazaritza jardueran baja hartzea.

b) Ustiategiko titularra aldatzea.

b) Ustiategiko osagaiak aldatzea.

d) Titulartasun mota aldatzea, edo ustiategien kokalekua eta mugak aldatzea.

e) Sozietateko kapitala aldatzea, edo erabakitze organoetako ordezkariak edo elkarte gisako ustiategietan kudeaketaren eta administrazioaren erantzunbeharra aldatzea.

f) Ustiategiarekin lotutako langileak aldatzea.

g) Orientazio produktiboa aldatzea.

5. Erregistroaren jarduna eguneratzea eta funtsezko aldaketan anotazioa errazteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan nekazaritza ustiategien gainean dauden datuak erabiltzea.

6. artikulua. Hasierako inskripzioa.

1. Inskripzio prozedura hasteko, zilegi izanen da bi modalitate hauetako bat erabiltzea:

a) Ustiategiko titularrak edo haren ordezkariak eskatzea.

b) Ofizioz, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak berak eskatzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan dauden datuak oinarri. Ofiziozko inskripzio proposamenak interesatuari jakinaraziko zaizkio hark datuak berretsi edo hala bide denean, zuzendu ditzan.

2. Nekazaritza ustiategi bat inskribatu ondoren, nahitaezkoa izanen da ustiategiko titularrak erregistroari funtsezko aldaketak jakinaraztea, aurreko zerbaki b) letran agintzen dena ezertan galarazi gabe.

7. artikulua. Nahitaezko inskripzioa.

Aurreko artikuluko 1. atalean agindu denagatik ere, nahitaezkoa izanen da Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatzea edo bestela inskripzioa eskatua izatea, betiere behar den dokumentazioa osorik badago, foru lege honek ezartzen dituen hoberiak eskuratzeko, eta bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako aurrekontu orokorren gain nekazaritza sektoreari laguntzeko ezartzen dituen laguntza guztiak ere eskuratzeko.

8. artikulua. Erregistroaren antolamendua.

1. Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroa behar adina fitxategiarekin antolatuko da bere datuak ahalik eta hobekien atundurik egoteko, eta ustiategien artean zein diren lehenetsiak eta zein ez bereiziko du, eta foru lege honetako 5. artikuluan eskatzen diren datuak jasoko.

2. Nafarroako Gobernuak zuzenbidean onartzen diren informatika sistemak aplikatzea bultzatuko du erregistroa osatzen duten datuak zaluago betetzeko.

3. Erregistro mantentzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du nekazaritza eskumenak baliatzeko bere esku dituen datuak erabiltzea, eta bai gainerako Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta erakunde autonomoetan dauden ere, datu pertsonalak babestearen gainean indar duten legeekin bat.

II.TITULUA

Ustiategi lehenetsiak

9. artikulua. Ustiategi lehenetsiak.

Nekazaritza ustiategi familiarrak eta elkarte gisakoak, kasuan kasu foru lege honetako 10, 11 eta 12. artikuluetako baldintzak betetzen badituzte, nekazaritza ustiategi lehenetsizat hartuko dira erregistroan inskribatzerakoan, eta foru lege honek ezartzen dituen hoberiak izanen dituzte.

10. artikulua. Ustiategi familiarrak edo titularizat pertsona fisikoak dituztenak.

1. Ustiategi lehenetsizat hartuko badira, ustiategi familiarrek edo titularizat pertsona fisikoak dituztenek honako baldintzak izan eta urtez urte iraunarazi beharko dituzte:

a) Ustiategiak gutxienez nekazaritzako lan unitate baten okupaziorako bide ematea. Nekazaritzako lan unitate bat badela juzgatuko da eskuratzaren diren lanaren errendimenduko dirusarrerak 3.000 euro baino gehiagokoak ez direnean.

b) Nekazaritza ustiategitik lortzen den lan errenta unitarioa gutxienez erreferentziako errentaren 100eko 35ekoa izatea.

c) Ustiategiko titularra jarduera nagusiko nekazaria izatea, foru lege honetako 3. artikuluko 6. zerbakiak agintzen duenaren arabera.

d) Gutxienez hemezortzi urte izatea baina hirurogeita bost bete gabeak izatea. Hartarako, adinez nagusi izatearen balio berekotzat hartuko da ezkontzaren bidez edo guraso boterea eman izanaren bidez emantzipaturik egotea.

e) Nafarroan izatea egoitza edo autonomia erkidego mugakideei buruzko lege autonomoetan definitutako eskualde mugakideetan. Egoitza baldintza hori ez da bete beharko ezinbesteko edo premiazko arrazoiak tarteko izan eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ontzat ematen baditu.

2. Ustiategiko titulartasuna, senar-emazteen kasuan, bi ezkontideek bere badute, aski izanen

da lehenetsizat sailkatzeko, ustiategiak eta ezkontideetako batek betetzea artikuluko honetan aipatzen diren baldintzak.

11. artikulua. Elkarte gisako nekazaritza ustiategiak.

Ustiategi lehenetsizat kalifikatzeko, elkarre gisako nekazaritza ustiategiek honako baldintzak bete beharko dituzte eta urtez urte iraunarazi:

a) Sozietate zibilaren forma juridikoa izatea, hurrengo artikuluan ezartzen diren betebeharrekin, edo bestela eraldaketarako nekazaritza sozietatearena, lan sozietatearena, kooperatiba erregularr kolektiboa, sozietate anonimoa, erantzunbehar mugatuko sozietatea edo bestelako merkataritza sozietatearena.

b) Beren titulartasuneko ustiategian nekazaritza jardueran aritzea beste helbururik ez izatea.

c) Gutxienez hiru mila euroko edo hori adinako pezeta kopuruko kapital aportatua edo sinatua izatea.

d) Anonimoak badira akzioak izendunak izan beharra mantentzea, eta sozietateko kapitalaren ehuneko 50 baino gehiago jarduera nagusiko nekazariak diren sozioena izan beharra.

e) Elkarte gisako nekazaritza ustiategiek bide ematea gutxienez nekazaritzako lan unitate bat okupatzeko, eta unitate bakoitzeko lan errenta unitarioa gutxienez erreferentziako errentaren ehuneko 35koa izatea.

f) Gutxienez sozioen 100eko 50 jarduera nagusiko nekazariak izatea.

g) Iraupen mugagabekoa izatea, eta eskritura publikoan jasotzen diren baldintzen artean gutxienez indibisioko itun bat egotea gutxienez sei urteko epe baterako, eta sozio guztiek espresuki beren burua lotzea sozietateak iraun artean nekazaritza araudiek sozietatearen inguruko gaietarako ematen dituzten laguntzak eta hobariak beren izenean ez eskatzeko, non eta legeak agintzen dituen kasuetan elkarre desegin edo errenuntzia egiten ez den, eta salbu, halaber, gorabehera pertsonalengatik emandako laguntza indibidualen kasuan ere. Halaber, bi baino gehiago sozioko elkarreetan, itun bat jaso beharko da elkartekide bat hiltzen bada, sozietatea bizirik gelditu direnen artean iraunarazteko.

12. artikulua. Nekazaritza sozietate zibilak.

1. Eraldaketarako nekazaritza sozietateak duten berariazko araubidea ezertan galarazi gabe, Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatu eta, beraz, Nafarroako Foru

Komunitateko Administrazioak zein ere modalitatean ematen edo onartzen dituen laguntzak eskuratu ahal izateko, eraldaketarako nekazaritza sozietatea ez beste sozietate zibil baten itxuran antolaturik dauden nekazaritza ustiategiek eskritura publikoaren bidez eratu beharko dute eta eskritura horretan gutxienez honako jakingaiok jasoko dira:

a) Sozietatearen helburua, hau da, soilik kasuko ustiategian nahiz ustiategietan nekazaritza jardueran aritzea.

b) Sozioen izen-deiturak eta helbidea.

c) Sozietateak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean non daukan helbidea.

d) Sozietatearen izena; sozio guztien izenak aipatu beharko ditu, edo kapital gehien dutenena, eta ez da zilegi izan kide ez diren pertsonen izenak agertzea izenean.

e) Sozietatea administratzeko eta haren ordezkari izateko ardura berezia du(t)en eta sozietatearen sinadura erabili eta sozietateahirugarren batekin konprometitzeko ahalmena ematen zaion sozioaren edo sozioen izen-deiturak. Administrazioa hori nahitaez jarduera nagusiko nekazaria izan da.

f) Sozio bakoitzak eskudirutan, kreditutan, efektu nahiz ondasun higiezin edo higigarrien itxuran aportatzen duen kapitala, horiei zenbateko balioa ematen zaien adierazirik, edo haien balorazioa zer oinarriren arabera egin behar den eta, hala bide denean, erregistroko eta katastroko datuak. Kapital hori ez da inoiz izan hiru mila euro edo balio bereko pezeta kopurua baino gutxiago.

g) Sozietateak zenbat iraunen duen, foru lege honetako 11. artikuluko 1 atalean g) letran agintzen dena begiraturik. Sozietatearen operazioak ez dira hasiko eskritura eman aurreko data batean, salbu eta eraldatze kasuetan.

h) Sozietatea osatzen duten sozioen erantzunbehar araubidea, kudeatzaile izan ala ez, pertsonala eta solidarioa izan da, beren ondasunak berme direla, sozietatearen izenean eta kontuan egiten diren operazioen ondorioz, sozietatearen sinadura pean eta sinadura hori erabiltzeko ahalmena duen batek eginda.

i) Sozio guztien konpromisoa ez egiteko beren buruz sozietatearen helburuarekin lotura duten negozio nahiz egintzak, kide diren sozietateaz landara.

j) Onurak eta galerak partitzeko arauak.

k) Sozietatea desegiteko arrazoiak; espresuki aipatu beharko da sozioen alde bakarreko borondatea ez dela arrazoizat onartzen, salbu eta motibo justua tarte badago, hala nola sozio batek bere eginbeharretan huts egitea, sozietateko negozioetarako debekua hartzea edo antzekoren bat. Sozietateko batek errenuntzia egiten badu, eskriturak aurreikusirik edukiko du gutxienez zenbat denbora lehenago eman behar zaien aditzera beste sozioei errenuntzia hori gauzatu baino lehen.

l) Sozioek on irizten dieten gainerako itun eta baldintzak, non eta legeek agintzen dutenari kontra egin edo zenbaki honetan ezarri dena ukatzen ez duten.

2. Sozietate zibilaren aldaketak ere eskritura publikoan tramitatu beharko dira.

13. artikulua. Nekazari gazteak.

1. Hauek hartuko dira ustiategi lehenetsizat beren lehenbiziko urtean:

a) Nekazari gazteen lehenbiziko instalazioa, instalazio horretarako laguntzak arautzen dituen araudiaren arabera, betiere nekazaria ustiategi lehenetsi horren gutxienez 100eko 50aren jabea bada.

b) Berrogeita hamabost urte baino gutxiagoko nekazarien lehenbiziko instalazioa, Gizarte Segurantzako bere gaingo nekazarien araubide berezian alta emanak, edo bere gaingo langileen edo autonomoen araubide berezian, bere nekazaritza jarduera zein den, baldin haien ustiategia Nafarroan badago eta gutxienez nekazaritza lan unitate bateko okupazioa izateko bide ematen badu.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen lehenbiziko urte hori pasatuta, ustiategia lehenetsia izateko foru lege honetako 10.1 artikulua ezartzen dituen baldintza orokorrak bete beharko ditu.

3. Halaber, foru lege honetako 15. artikuluko 1. ataleko d) letrak aipatzen duen kuoten edo produktio- eskubideen asignazioan lehenetsiko dira beren lehen instalazioarekin ustiategi lehenetsi baten gutxienez 100 50aren titular edo kotitular diren gazteak.

14. artikulua. Inskripzioaren frogagiria.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, interesatuak hala eskatuta, ustiategia Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribaturik dagoela frogatzeko agiria emanen du.

2. Frogagiri hori nahitaezkoa izanen da foru lege honetan aurreikusten diren onurak eskuratu ahal izateko eta bai Nafarroako Foru Komunitate-

ko Administrazioak Nafarroako aurrekontu orokorren gain nekazaritza sektoreari laguntzeko ezartzen dituen laguntza guztiak ere eskuratzeko.

III. TITULUA **Onurak**

15. artikulua. Lehenespen egoerak.

1. Ustiategi lehenetsien titularrek honako kasu hauetarako izanen dute lehentasuna:

a) Nafarroako aurrekontu orokorren kargu ezartzen den edozein laguntza.

b) Fondo publikoetatiko dirulaguntza duten nekazaritza aseguruak.

c) Nekazaritzako produkzioak ordenatzeko programetan edo lurralde eremu espezifiko programetan sartuta dauden laguntzak, betiere programa horien helburuarekin bateragarria bada.

d) Kasuko merkatu erakunde komunei buruzko araudia aplikatu edo garatzeko kuotak edo eskubideak asignatzean, beti arau horietan hartarako ezarritako baldintzekin bat, asignatzen diren kuota edo eskubideak, osorik nahiz partez, Nafarroako aurrekontu orokorren kargu eskuratu badira eta haiek asignatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari badagokio.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarri dituen edo ezarriko dituen laguntzetan, 3. artikuluko c) letran zehazten diren helburuak iristeko, eta Nekazaritzako azpiegiturak erreformatzeko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarriak aurreikusten duen lur fondoa eskuratzeko.

2. Orain arteko lehentasun egoera horien baldintza izanen da ustiategia oraindik ere lehenetsietakoa izatea aurreko idatz-zatian aipatu neurriak aplikatu direnean ere, eta neurri horien aplikatzearen ondorioz lehenetsietan sartzen diren ustiategietako titularrei ere zabalduko zaizkie.

16. artikulua. Maileguak.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko 1999ko apirilaren 26ko testu bateginaren 22. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen duen "Egintza juridiko dokumentatuak" delako kontzeptuagatik salbuetsi egiten dira, balio erantsiaren gaineko zerga pean dauden mailegu hipotekarioen eraketa, aldaketa edo deuseztapena dokumentatzen duten eskritura publikoen lehenbiziko kopiak, mailegu horiek ematen bazaizkie hobekuntza planak egiteko lehenetsita dauden ustiategien titularrei, lehenetsiak izan gabe ere mailegu horien bidez erosita-

koekin lehenetsietan sartzen diren ustiategiak titularrei eta Nekazari gazteei nekazaritza ustiategi baten lehenbiziko instalazioan laguntzeko.

17. artikulua. Ustiatagia osorik eskualdatzea.

1. Nekazaritzako ustiategi oso baten erabateko jabetza edo biziarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, betiere hori egiten bada lehentasunezkoa den edo eskurapenaren ondorioz izaera hori lortzen duen beste ustiategi bateko titularraren alde edo halako titular bat izanik egilea, orduan, eskualdatze edo eskuratze hori salbuetsirik egonen da ustiategiaren edo hori osatzen duten elementuen eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik, hori guztia, baldin eta, eskualdatzearen ondorioz, eskuratzailaren ustiategiak duen lehentasunezko izaera aldatzen ez bada.

Ustiategiaren eskualdaketa eskritura publiko bidez egin behar da.

Idatz-zati honetako lehen lerrokadan aipatu ondorioetarako, nekazaritzako ustiategi osoaren eskualdaketa egiten dela ulertuko da, baita etxebizitza kanpoan uzten denean ere.

2. Salbuespen hori zilegi izan dadin, eroste eskritura publikoan eta, eskualdatzen diren finkak bertan inskribaturik badaude, jabetza-erregistroan aditzera emanen da ezen erositako finkak hurrengo bost urteetan besterendu, errentatu edo lagatzen badira, aurrez frogatu beharko dela egindako salbuespenaren ondorioz pagatuko ez zatekeen zerga pagatu dela, eta bai berandutzako interesak ere, non eta ezinbestea, hiltzea, elbarritzea, titularraren adinagatik jubilatuta eta jardueratik gelditzea edo erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein arrazoi tarteko ez den.

18. artikulua. Ustiategi bat muga bakar baten pean osatzeko eskualdaketa.

1. Landa finka baten erabateko jabetza edo biziarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, muga bakar baten pean ustiategi lehenetsi bat izateko behar adina azalera lortzea helburua dela, hori salbuetsirik egonen da eskualdatze edo eskuratze hori kargatzen duen zergatik, baldin eta dokumentu publikoan jasotzen bada ondoriozko finka zatiazina izanen dela hurrengo bost urteetan, salbu eta aurreko artikuluko 2. atalean ezarri diren kasuetan.

2. Eskualdaketa edo eskuratzearen gaineko zergari dagokion zerga oinarrian 100eko 50eko murrizketa aplikatuko da honako kasuan: nekaza-

ritzako ustiategiaren titularrek lurren eskualdatzea edo eskuratzea egiten dutenean muga bakar baten barnean biltzeko ustiategi bateko azalera 100eko 50a gutxienez, betiere hori dagokion lan-unitatearen errenta foru lege honek ezarritako muga barnean baldin badago, hori guztia, lehentasunezko ustiategietarako zerga onurak emateko. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, aurreko atalean aipatu diren zatiezintasuna eta dokumentu publikoaren egiteko obligazioa bete beharko dira.

19. artikulua. Nekazaritza ustiategiak eta landa finkak partez eskualdatzea.

1. Landa finka baten edo nekazaritzako ustiategi bateko zati baten erabateko jabetza edo biziarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, betiere hori egiten bada eskurapenaren ondorioz lehentasun izaera galtzen ez duen edo lortzen duen lehentasunezko ustiategi bateko titularraren alde, orduan, salbuespena aplikatuko da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergan.

2. Onura hori aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da eskualdaketa eskritura publikoan egitea, eta foru lege honetako 17. artikuluko 2. atalean ezartzen dena aplikatu beharko da.

3. 1. idatz-zatian aipatzen den eskualdaketa edo eskurapenean batera Europako Batasunaren Nekazaritza politikaren ondoriozko produkzio eskubide edo kuotak eskualdatu edo eskuratzen badira, artikuluko 1. idatz-zatian ezartzen diren onura berak aplikatuko dira.

20. artikulua. Landa finkak trukatzeara.

Ondare eskualdaketa edo egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako "kostu bidezko ondare eskualdaketa" kontzeptutik edo Balio Erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita egonen dira Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak baimena eman dien landa finken borondatezko trukea, betiere trukatzaila bateko bat gutxienez nekazaritza ustiategi lehenetsi baten titularrak bada eta trukea, eskritura publikoaren bidez egin beharrekoa, helburu hauetako batekin egiten bada:

a) Barrendegi diren lurzatiak kentzea; barren-degi dira nekazaritza garatu eta erreformatzeko legeetan halakotzat hartzen direnak.

b) Bide zorrak kentzea.

c) Nekazaritza ustiategiak berregituratzea, kasu horretan alde anitzeko trukeak sarturik, lurzati berrantolamendu pribatua lortzeko egiten direnean.

d) Trukatzen diren finkak ustiattegiko titularra bizi den etxea dagoen finkatik hurbilago egotea, etxearen mugakide batzuekin truke eginaz, edo ustiattegiko azalera handiena osatzen duten finken mugakide diren etara hurbiltzea finkak.

21. artikulua. Erregistroan inskribatzea.

Jabari espedienteak, nabaritasun aktak eta jabetza-erregistroan ustiategi lehenetsi bateko edo sartuz gero hala izan daitekeen bateko finkak inmatrikulatzeko edo erregistro-segida etendua ber-hasteko beste edozein prozedura salbuetsirik egonen dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako "kostu bidezko ondare eskualdaketak" kontzeptutik.

22. artikulua. Elkarte gisako ustiategi lehenetsientzako onura fiskal bereziak.

1. Amortizazio askatasuna izanen dute nekazaritzako jardueri loturiko higiezin material eta inmaterialen elementuek, baldin eta lehentasunezko ustiategi izaera lortzen den egunaren ondoko lehen bost urteetan eskuratuak badira.

2. Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen arabera bereziki babesturiko nekazaritza kooperatiba gisa eratuta dauden lehentasunezko ustiategi elkartuen kasuan, sozietateen gaineko zergaren barnean kuota osoaren hobaria, zerga horren 28.2 artikuluan aurreikusia, 100eko 80koa izanen da.

3. Eraldaketarako nekazaritza sozietate diren elkarte gisako ustiategi lehenetsientzat, sozietateen gaineko zergan tributatzeko badute, 100eko 50eko hobaria izanen da sozietateen gaineko zergaren kuota osoan.

23. artikulua. Nekazari gazteentzako zerga onura bereziak.

Foru lege honen 16, 17 eta 19. artikuluetan aurreikusitako zerga onurez gain, nekazari gazteek beste hauek ere izanen dituzte:

1. Nekazaritzako ustiategi baten edo horren zati baten zein landa finka baten erabateko jabetza edo biziarteko usufuktua edozein titulu bidez, kostubidezkoa edo irabaziduna, "inter vivos" edo "mortis causa" eskualdatu edo eskuratuz gero, betiere hori egiten bada lehentasunezko ustiategi bat lehen aldiz instalatzen duen nekazari gazte baten alde, orduan, salbuetsia egonen da eskualdatze edo eskuratzearen gaineko zergatik.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarduerako etekin garbia estimazio objektiboen metodoa erabiliz zehazten duten nekazari gazteek, beren nekazaritza jarduerari dagokion 100eko 50ean murriztu ahalko dute, lehentasu-

nezko ustiategi bateko titular gisa lehen aldiz instalatu ondoko bost urteetan itxitako zerga-aldietan, baldin eta ustiategia hobetzeko plan bat egin izana egiaztatzen badute. Arestian aipatu instalazioa foru lege honen 10. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egina izanen da.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen errendimendu garbiak, estimazio objektiboko araubidea erregulatzen duten arauak aplikatzea beste inolako jatorririk ez du izanen.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Foru lege honetako 16.etik 23.era arteko artikuluetan aipatzen diren zerga onurak aplikatzeko, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 45. artikulua aipatzen duen Hitzarmen Ekonomikoak ezartzen dituen irizpideak hartuko dira aintzat.

Bigarrena. Nekazaritza ustiategiak modernizatzeko uztailaren 4ko 19/1995 Legeko 16. artikuluko 1. idatz-zatiak agintzen duenaren arabera, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko ustiategi lehenetsien katalogo orokorrean sartzeko, epez epe jakinaraziko zaio ministerio horri Nafarroako nekazaritza ustiategietatik zein sailkatu diren lehenetsizat, eta bai haien aldaketak ere.

Hirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 11.2 artikulua a) eta b) letretan eta 21. artikulua agintzen dutenaren arabera, zilegi izanen da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak bere fitxategietan datu pertsonalen gainean daukan informazioa interesatuaren baimena eskatu gabe ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, Estatuko administrazio publikoen eta Nafarroako administrazio publikoen beste organo batzuei lagatzea, gure lege sistemak esleitzen dizkien eginkizun publikoak burutu ahal izateko.

Hartarako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari egiten dioten eskaeran, hala eskatzen duten administrazio publikoek adieraziko dute zehazki zertarako erabili behar duten eskatutako informazioa.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak lagatuko informazioa hartzen duten Administrazio Publikoek behar adina neurri hartuko dituzte informazio horren sekretua eta pertsona fisikoen ohore eskubidea, intimitate pertsonala eta familiarra eta beren eskubideak osorik erabili ahal izatea uneoro segurtatzeko, eta ez da zilegi izanen informazio hori besteri lagatzea, eta bestela jokatzeko badute abenduaren 13ko 15/1999 Lege

Organikoaren ondoriozko erantzunbeharra sortuko zaie.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. 1998ko abenduaren 31ra arte, zilegi izanen da ustiategi lehenetsizat jotzea ustiategi familiarak, baldin haien lan errenta unitarioa erreferentziako errentaren ehuneko 30etik gorakoa baina ehuneko 120etik beherakoa bada, gutxienez nekazaritzako lan unitate baten erdia betetzeko gai badira eta foru lege honetako 10. artikuluan ezartzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena. 1. 2002ko abenduaren 23ra arte agertzera ematen diren ondare gehitze garbiak, landa finkak eta nekazaritza ustiategiak eskualdatzearen ondoriozkoak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiboko metodoa aplikatzearen ondoriozko errendimendu garbian sartuko dira, erregelamendu bidez ezartzen den zenbatekoan eta betiere aktiboek subjektu pasiboaren ondarean iraun duten epea gutxienez bost urtekoa izan bada.

2. Aurreko lerroaldean ezarri dena aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da eskualdatutako landa finkak edo nekazaritza ustiategiak eskuratu dituenak ustiategi lehenetsiak eratu edo sendotzeko erabilteza edo administrazio publikoek erostea lur bankuetan edo antzeko organoetan sartzeko, edo ingurumena babesteko.

3. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez garatuko du zer baldintza bete behar dituz-

ten bai eskualdatzaileek eta bai eskuratzzaileek xedapen honetan ezartzen dena aplikatzeko.


Hirugarrena. Foru lege honetako 3. artikulua jarduera nagusiko nekazaria eta nekazari gaztea izateko eskatzen dituen baldintza berriak 2001eko abenduaren 18tik aurrera aurkezten diren laguntza eskaera berri guztiei aplikatuko zaizkie, baldin laguntza horiek gobernatzen dituen araudian jarduera nagusiko nekazaria edo nekazari gaztea izateko baldintza eskatzen bada edo eskatu bada laguntzen hartzaile izateko.

Laugarrena. 1. 2001eko abenduaren 18tik aurrera ez da zilegi izanen lehenetsizat jotzea kasuan kasuan 10, 11, eta, hala bide denean, 12. artikuluen testu berrituetako baldintzak betetzen ez dituzten nekazaritza ustiategi familiar edo elkarte gisakoetarako eskaerak.

2. Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan inskribatuta dagoen sozietate batek 2002ko abenduaren 18 baino lehen 11 eta 12. artikuluetako baldintzak betetzen ez baditu, berehala galduko du lehenetsitasuna, eta beraz handik aurrera ezin hartuko du nekazaritzari buruzko araudiak ezarritako eta Nafarroako Foru Komunitateak partez nahiz osorik dirututako laguntza publikorik.

Aken xedapena

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren erregelamenduzko arau guztiak emateko.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	